

# Adolf Hitlerren bereizgarri psikopatologikoak, Bigarren Mundu Gerra eta Holokaustoa

MIKEL HARANBURU OIHARBIDE, NEKANE BALLUERKA LASA, ARANTXA  
GOROSTIAGA MANTEROLA ETA JESÚS GUERRA PLAZA<sup>1</sup>

UPV-EHU

## (The psychopathological traits of Adolf Hitler, the Second World War and the Holocaust)

### Abstract

*The character and personality of Adolf Hitler creates a great fascination among his adepts, among his enemies, and among people in general. Although there are a series of socio-historical factors that contribute to the emergence and flourishing of fascist or anti-Semitic feelings and attitudes, the influence the personality of leading figures like Hitler has on the organization and evolution of the National Socialism and the Second World War cannot be denied. In this article we place the figure of Adolf Hitler in the context of the events that occurred in Germany in the first half of the twentieth century. We analyze the crucial contributions made by Hitler to the development of World War II, anti-Semitism and the Final Solution. Hitler's psychopathological traits (paranoia, narcissism, somatization, hysteria, masochism, sadism, procrastination) had a significant influence on the development of his leadership, in the conquest of power by the Nazis, in the instigation of anti-Semitism and in the development of the Second World War. We can say that without Hitler the Holocaust would not have been what it was.*

**Keywords:** Hitler, paranoid, narcissism, dissociation, Nazism, Holocaust.

### 1. Sarrera

Hitlerren portaeraren azalpen psikologikoa edo psikopatologikoa ematen dugunean, haren portaera zuzitzen ari garela pentsa dezake norbaitek. Hitlerren egoera psiko-soziologikoetan bizi izanez gero, gutako edonork haren mo-

---

<sup>1</sup> Eskerrik beroenak GOGOAKo txostengile anonimoei.

duan joka lezakeela pentsatzera eta harekin enpatizatzerara iritsi gaitzke. Dago-kion testuinguruan aztertzen dugunean, gizaki baten trazak hartzen dizkiogu Hitlerri, ez deabru batenak. Izan ere, Hitlerrengan ikusten ditugun bereizgarriak aurki ditzakegu beste gizakietan ere, maila kuantitatibo ezberdinean bada ere. Hitlerren portaeraren eta beste hainbat gizakiren portaeraren arteko aldea ez da batez ere kualitatiboa, kuantitatiboa baizik. Gainera, Hitlerren beraren portaera ere aldatzen joan zen, denborak aurrera egin ahala. Ikuspegi honetatik esan dezakegu, beraz, Hitlerren portaera motak ez direla bakarrak eta bereiz-ziak; antzeko portaerak ager ditzaketela beste hainbat pertsonak ere, maila eta intentsitate arinagoan bada ere, antzeko egoerak bizitzen dituenen.

Ikerlari zenbaitentzat ikuspegi kuantitatibo horrek eraman gaitzake edo-zein pertsonaren jokaerak zurrizera. Izan ere, portaera horiek ulertzera iristen bagara, zurrizteraino eta barkatzeraino ere hel gaitzke. Honela, Hitlerren portaera ulertzeak eraman gaitzake portaera horren ondorio den Holokaustoa barkatzera. Gogoeta horren aurrean, honako hau esan behar da: gure jarrera gertaerak ulertzearen aldekoa bada ere, portaera bat ulertzeak ez du esanahi, beste gabe, portaera hori zurrizten eta barkatzen denik. Beraz, Hitlerrek psikopatologia bat (somatizazioa, paranoia, nahaste psikopatikoa, hipokondria) zuela esateak ez du haren portaera zurrizten. Hitlerren eldarnio paranoideak nahaste mental baten adierazle dira, baina haren nortasunaren alderdirik gehienek funtzionamendu normala zuten; Hitler ez zen zoroa; bazekien zertan ari zen, eta berak erabaki zuen egin zuena egitea. Beraz, Hitler bere ekin-tzen erantzule zen.

Ikerlari askok egiten dute galdera hau: Holokaustoa gertatuko al zen Hitler jaio izan ez balitz? Galdera honi ikuspegi bikoitzetik erantzun zioten Coolidge, Davis eta Segal-ek (2007). Lehenengo ikuspegiaren arabera, Holokaustoa zuzenki loturik dago Hitlerren existentziarekin: ez zatekeen gertatuko, Hitlerren bereizgarri psikopatologikoengatik izan ez balitz; bereizgarri horiek ziren Hitler pertsona benetan gaizto bihurtzen zutenak. Bigarren ikuspegiaren araber, Holokaustoa eta antzeko gertaeretan eragin gutxi dute pertsona jakin-en bereizgarriek; gertaera horiek XX. mendeko lehen erdiko egoera sozio-ekonomikoarekin eta gizaldietan zehar (Luterorengandik hasita) eraiki den anti-judaismoarekin loturik daude.

1. Lehen ikuspegiari jarraituz, ikerlari askok aztertu dituzte Hitlerren bereizgarri psikopatologikoak: Langer, Murray, Fromm, Redlich, Alice Miller, Waite, Mayer.
2. Bigarren ikuspegiari jarraituz, Goldhagen-ek (1996) Holokaustoa erantzukizuna Alemaniako egoera sozio-ekonomikoan aurkitu behar dela uste du, eta ez Hitlerren bereizgarri psikopatologikoetan. Beraz, Hitlerrik gabe Holokaustorik ez zela gertatuko diotenen kontra agertzen da Goldhagen.

Gure lanean zehar, lehenik, Hitlerren biografiako eta ibilbide politikoko datuak emango ditugu; nazismoaren eta Bigarren Mundu Gerraren sorreran eta bilakabidean Hitlerrek izan zuen eragin erabakigarria aztertuko dugu. Ondoren, Hitlerren bereizgarri psikologikoak eta psikopatologikoak deskribatuko ditugu, hainbat ikertzailearen lanetan oinarrituta. Gero, Hitlerrek Holokaustoa bete zuen funtzioa aztertuko dugu, ikuspegi funtzionalistatik eta estrukturalistatik; juduak erbesteratzera eta desagerraraztera bideratutako politikaren garapena deskribatuko dugu. Amaitzeko, antisemitismoaren eta Holokaustoa erantzungarapenean sustatzaileek eta exekutatzaileek izan zuten rola eta erantzukizuna aztertuko dugu.

## 2. Hitlerren biografiako eta ibilbide politikoko datuak

### 2.1. Jaiotzatik gurasoen heriotzara arte

Adolf Hitler Braunau am Inn hirian (Austriar-Hungariar Inperioa) jaiotzen, Austria eta Alemaniaren arteko mugatik hurbil, 1889ko apirilaren 20an, Alois eta Klara Pölzl-ek osatutako bikotetik. Alois Schicklgruber-ek 52 urte zituen Klararekin ezkondu zenean, eta hirugarren ezkontza zuen; Maria Ana Schicklgruber-en eta Graz-eko judu baten semea zen (Fest, 2005). Alois lehengo aldiz ezkondu zenean, bera baino 14 urte zaharragoko emakume batekin ezkondu zen eta bere lehengusuaren alaba (Klara Pölzl) zaintzen zuten. Bigarren ezkontzan ezkontidetzat hartu zuen emakumea maitale izan zuen lehen ezkontzan eta bi seme-alaba izan zituen: Angela eta Alois. Adolf Hitler Aloisen hirugarren emaztearen semea zen, baina Klararen lehen semea. Adolffen anai-arreba gazteak Edmundo eta Paula ziren. Anai-arreba guztietatik Adolf eta Paula bakarrik iritsi ziren helduarora.

Hitlerren aitak aduanetako funtzionario moduan lan egin zuen. Adolfek 3 urte zituenean, familia Passau-ra joan zen bizitzera. Bost urte zituenean, Linzen jarri ziren bizitzen (Fest, 2005). Hitler austriarra baino areago alemaniarra sentitzen zen, eta Passauko azentuaz hitz egiten zuen (Payne, 1973; Redlich, 1998). 1895ean erabaki zuen Aloisek erretiroa hartzea. Ordura arte, amarekin izan zuen batez ere harremana Adolfek.

Sei urterekin hasi zen Adolf eskolara joaten eta nota onak atera zituen 11 urte bitartean. Ikasle argia zen, baina lanerako ordenarik eta metodorik ez zuen (Fest, 2005). Anaia Edmundo elgorriaz hil zen 1899an eta orduz geroztik Adolfek nota txarrak atera zituen eskolan. Abentura liburuetarako zaletasun gehiago zuen eskolako gaietarako baino. Bigarren Hezkuntzan, Linz-eko Realschule-en sartu zen, baina ez zuen azken azterketa gainditu eta ez zituen bete aitaren igurikapenak. Suspenditu egin zuen matematikan, frantsesean

eta alemanean. Atsegin zitzaiona bakarrik ikasten zuen. Beste gaiak ez zituen lantzen. Aitak funtzionario izatera behartu nahi zuelako, haren kontrako egoskorkeriaz gertatu omen zen Bigarren Hezkuntzako porrot hori (Fest, 2005).

Adolfek ia lagunik ez zuen izan haurtzaroan. Lagun kuttun bat eduki zuen, Augusto Kubizek, eta harekin partekatu zuen musika zaletasuna. Kubizekek zion Hitlerren oso laguna izan zela eta zaletasun hauetan bat zetozela: artearekiko grina, Richard Wagnerren musika, Nietzscheren filosofia eta mitologia germanoa. Adolfek konbentzitu zuen Kubizeken aita, semea Vienako Kontserbatoriora musika ikastera bidal zezan; Kubizekek amaitu zituen musika ikasketak eta Marburgoko orkestra batean zuzendari moduan lan egin zuen. Elkarrengana oso ondo egokitzen ziren Kubizek eta Hitler. Kubizek isila, mendekoa, pasiboa eta inpresionagarria zen, eta ez zuen Hitlerrek bezalako sentimendu sutsurik (Kershaw, 1998). Hitlerrek sentimendu sutsuak zituen eta besteak inpresionatzea gustatzen zitzaion. Kubizekek (1953) pertsona zurrun eta egosgogor moduan deskribatu zuen Hitler: haurtzarotik irten nahi ezean jarraitzen zuen, bere baitatik haratagoko interesik agertzen ez zuela. Harremanen momentu gorenean elkarrekin joaten ziren Vienako Hof Operara Richard Wagner-en lanak ikustera. Han ikusi zituzten *Lohengrin*, *Tannhäuser*, *Tristan eta Isolda*, *Parsifal*, *Rienzi* eta beste (Kubizek, 1953).

Alois 1903an hil zen, apoplexia eraso batez (Payne, 1973). Adolfen uste-tan, aita sifiliaz hil zen, erdi judua zelako eta uste zuelako juduen artean sifilia belaunaldiz belaunaldi transmititzen zela (Mein Kampf, 1943). Aitaren heriotzaren ostean nahiko bizitza patxadatsua izan zuen, ama bizi izan zen bitartean. Izan ere, amarekin lotura estua izan zuen Adolfek, aitarekikoa baino askoz estuagoa (Langer, 2012). Baina, ama 1907an hil zitzaion, bularreko minbiziaz. Adolfek amarekiko atxikimendu handia zuenez, esan izan da amaren gaixotasuna garaiz diagnostikatu ez zuen mediku juduaren kontrako gorrotoa piztu zitzaiola. Redlichek (1998) ez zuen uste Hitlerren juduekiko gorrotoa hor piztu zenik, sendagile juduaren zerbitzua eskertu egin baitzuen Adolfek. Adolfen antisemitismoa ez zen garai horretan piztu, baizik I. Mundu Gerrako porrotaren ostean, 1919ko udan. Vienako egonaldian harreman handia izan zuen Hitlerrek merkatari juduekin.

## 2.2. Vienako egonaldia

Hamaika urte zituela erabaki zuen Adolfek artista izango zela (Mein Kampf, 1943). Aitarekin eztabaida asko izatera eraman zuen horrek, semea funtzionario izatea nahi baitzuen hark. Aita hil eta gero, ama hil baino bi hilabete lehenago, Vienara joan zen Hitler, Arte Ederretako Akademiarako sarre-ra-azterketa egitera (Olsen, 2012). Orduan jakin zuen amaren heriotza gertu zegoela. Hitler etxera itzuli zen eta amaren ondoan egon zen, hura hil arte.

Ama hil ostean, Vienako Arte Ederretako Akademian onartu ez zutenean, Akademiako errektoreari azalpenak eskatu zizkion Adolfek, eta hark esan zion pinturarako gaitasunik ez zuela inolaz ere, baina arkitekturarako gaitasunak bazituela eta eska zezala arkitekturako eskolarako sarrera (Fest, 2005). Gogoeta egun batzuen ostean errektorea zuzen zegoela pentsatu zuen eta arkitektura eskolarako sarrera eskatu zuen, baina eskola hartan ere ez zuten onartu. Hitler oso baztertua sentitu zen, eta sentimendu hori areagotu egin zen haren lagun Kubizek Vienako Musikako Akademian onartua izan zela jakin zuenean (Kershaw, 1998).

Bizitzako oroitzapenik tristeenak Vienan bizi izan zituen Hitlerrek (Mein Kampf, 1943). Umezurtzaren pentsio txiki bat jasotzen zuen, eraikuntza lanean jardun zen, berak egindako akuarela eta marrazki batzuk saltzen zituen, etxerik gabeko jendearentzat juduek fundatutako egoitza batean bizi izan zen, gosea eta hotza pasatu zituen eta museoetan, operan eta kafetegietan gastatzen zuen eskuratutako diru apurra. Eraikuntzan lanean ari zela militante marxistak ezagutu zituen, baina Linz-en irakasle izan zuen Ludwig Poetsch-en ideia nazionalistetatik hurbilago zegoen, marxismotik baino. Lankideekin iskanbilak ere izaten zituen; horietako batean, 1909an, berriro lanera agertzen bazen aldamiotik botako zutela esan zioten lankideek; lanik gabe geratu zen, egoitza botatu zuten eta gosea pasatu zuen. Artea ikasi ezin zuenez, liburuak, historia eta filosofia irakurtzen eta mitin edo bilera politikoetara joaten hasi zen, bere konbikzioei eusteko argudio bila (Olsen, 2012; Langer, 2012). Schönerer, Lueger, Wagner eta Lanz von Liebenfels-en literatura eta prentsa antisemitikoaren eragina ere jaso zuen, bera oraindik erabat antisemita ez bazen ere (Olsen, 2012; Fest, 2005; Langer, 2012; Jimenez Cores, 2004; Reich, 1972).

Garai horretan ezagutu zuen pertsonetako bat Reinhold Hanisch izan zen. Hanishek Hitlerren koadroak saltzen zituen; hark zioenez, Hitler ez zen oso langilea, ez zen gai goizean goiz jaikitzeko; borondatearen paralisi moduko bat zeukan (Hanisch, 1939). Hitlerren eta Hanishen arteko harremana gaizki amaitu zen: koadro baten salmentagatik lortutako diru guztia beretzat gorde izana leporatu zion Hitlerrek Hanishi; atxilotu egin zuten Hanish eta Hitlerrek haren kontrako lekukotza egin zuen (Fest, 2005).

Vienako egonaldia amaitu zuenean, pertsona alfer moduan ageri zen Hitler; bere porrot pertsonala ezkutatzeko erabiltzen zuen antisemitismoa.

Vienako egonaldian osatu zen Hitlerren mundu ikuskera; Hitlerren etorkizuneko eraikuntzen oinarriak han ezarri ziren. Ez zitzaion atsegin Vienan ikusten zuen arrazen nahasketa: poloniarak, hungariarrak, serbiarrak, kroaziarak, txekiarrak, juduak... (Fest, 2005; Jimenez Cores, 2004). Vienako garai honetan hasi zen juduen eta marxisten kontrako jarrerak hartzen, erabaki nagusiak I. Mundu Gerraren ostean hartu bazituen ere; Vienan konturatu zen prentsa sozialdemokrataren eta prentsa marxistaren atzean juduak gordetzen

zirela; Vienan konturatu zen marxismoaren aitzindaria demokrazia dela. Juduak marxismoa eta sindikalismoa erabiltzen ditu nazionalitatea eta arraza gainditzeko; langileari esaten zaio bere eskubideengatik borrokatzeko, baina borroka horren etekina juduak eskuratzen du, nazioak eskuratu ordez (Mein Kampf, 1943). Artista handi bihurtzeko zuen ametsa bete ezinak frustrazioa sortu zion eta porrotaren erantzukizuna besteei botatzen hasi zen. Ordura arte bereziki antisemita izan ez bazen ere, Europa erdialdeko hiririk antisemite-nean bizitzeak lagundu zion jarrera hori hartzen.

### 2.3. Lehen Mundu Gerra

Hitlerren ideia nazionalistak Linzen sortu ziren, eta Vienan indartu. 1913an, Vienan sei urte egin ondoren, Munichera joan zen, I. Mundu Gerraren bezperan (Payne, 1973; Redlich, 1998). I. Mundu Gerraren deklarazioa une sakratua eta apoteosikoa iruditu zitzaion Hitlerri, gaztaroko hutsunea betetzeko eta gaztaroan jasandako irainak gainditzeko aukera emango baitzion (Fest, 2005). 1914tik 1918ra bitartean luzatu zen gerra horrek eman zion lehen aldiz bizitzarako helburu bat: Alemania kanpoko eraginetatik askatzea. Babierako erregeari baimena eskatu zion, austriarra izan arren gudarostean Alemaniaren zerbitzuan jarduteko. Armadako infanterian eman zituen bere zerbitzuak; oso esanekoa zen eta denbora asko ematen zuen bere fusila eta baioneta garbitzen. Armadak oreka, diziplina, batasun sentimendua eta erakunde baten kide izatearen sentipena eman zizkion Hitlerri (Jimenez Cores, 2004). Gudari ausarta izan arren, bi aldiz zauritua izan arren eta burdinazko bi gurutze (lehen mailako eta bigarren mailako burdinazko gurutzeak) jaso zituen arren, armadako eskalan ez zuen kabo maila besterik lortu; izan ere, barkartia, umore txarrekoa eta lider izateko gaitasunik gabea zen. Gerra garaian Homero, ebanjelioak eta Schopenhauer irakurri zituen (Fest, 2005). Armadan aurkitu zuen bere aberria. Amaren ondoan bezala, babestua sentitzen zen armadan.

1916an ezkerreko izterrean metraila-zauriak izan zituen eta 1918an mostaza gasezko eraso bat jaso zuen britainiar armadak eraginda; gas horrek begietan erredurak eragin zizkion eta itu geratu zen. Pasewalk-eko ospitalean mostaza-gasaren ondorioetatik sendatzen ari zela, 1918ko azaroan, Alemania errenditu egin zen (Fest, 2005). Errenditze hori ezusteko handia eta kolpe gogorra izan zen Hitlerrentzat. Kolpea are gogorragoa izan zen, Versaillesko itunak Alemaniari jartzen zizkion baldintzak ezagutu zituenean (Olsen, 2012; Fest, 2005). Egoera guztiaren errudun juduak egin zituen (*Mein Kampf*, 1943). Ospitalean Hitlerrek ikuspen jainkotiar baten modukoa izan zuen, eta ikuspen horren ondorioz politikan sartzea erabaki zuen (Langer, 2012). Mostaza gasaren usainak hiltzorian zegoen amari jarritako iodoformoa oroitarazi zion, eta horrek amaren heriotzaren esperientzia birbizitzen lagundu zion; horrela

lotu zituen hilzorian zegoen amarekin bizi izandako esperientzia eta Alemaniaren erorketarena (Binion, 1973, 1974). Alemaniaren erorketak frustrazio handia eragin zion eta ondorioz depresioaldi bat izan zuen. Ama hil zitzaionean geratu zen moduan gelditu zen Alemania erortzean: etorkizunaren aurrean bakarrik eta armadaren babesik gabe. Hainbeste ahalegin eta borroka egin ondoren, dena bertan behera etortzen ikusi zuen Hitlerrek (*Mein Kampf*, 1943). Horregatik, gerra amaitzean, Munich-eko koartelera itzuli zen eta espioi militar moduan jardun zen (Langer, 2012).

#### 2.4. Alderdi naziaren sorrera eta gorakada

Versaillesko tratatua 1919ko ekainaren 28an sinatu zen eta frustrazio handia ekarri zion horrek Hitlerri. Ibilbide artistikoa utzi eta politikan murgiltzea erabaki zuen (Olsen, 2012). Alemaniako Langileen Alderdiarekin harremanean jarri zen; alderdi horretako kideak ziren Rosenberg, Eckart eta Feder. Hitler ere laster bihurtu zen alderdi horren kide eta propaganda-buru eta 1920an utzi zuen armada. Garai horretan garatu zen Hitlerren antisemitismo bortitza eta bi helburu jarri zizkion bere jardura politikoari: 1918ko porrotaren erantzule ziren juduen mendekua hartu eta Alemaniaren handitasuna berreskuratu. Hitlerren antisemitismoan eragin handia izan zuten, besteak beste, Dietrich Eckart kazetariak (hari eskaini zion Hitlerrek *Mein Kampf*) eta Alfred Rosenberg filosofoak. Horrelako pertsonaien eta Darwinismo sozialaren eraginaren ondorioz, konbikzio hauetara heldu zen Hitler: arrazen arteko borrokan arraza gaituenek biziraungo dute eta gaitasun gutxien dutenak desagertu egingo dira; arraza gaituentzat iparreko arraza germanikoa hartu zuen.

Versaillesko tratatuaren etsai amorratu eta arrazismo pangermanikoaren defendatzaile sutsu bihurtu zen Hitler. Ideologia horren eraginez, Langile Alemaniaren Alderdi Nazional-Sozialista bihurtu zen Alemaniako Langileen Alderdi zena (Fest, 1970). 1920ko otsailaren 25ean eratu zuten Langile Alemaniaren Alderdi Nazional-Sozialista eta alderdiaren gidari nagusi bihurtu zen Hitler, hizketarako zituen dohainengatik eta komunikaziorako zuen gaitasunagatik (Payne, 1973; Redlich, 1998).

Gazte-gaztetatik amets egin zuen Hitlerrek Austria eta Alemania elkartzearekin. Amets hori obsesio huts baino zerbait gehiago zela demostratu nahi zuen. Alemania elkartu bat iritsi zitekeen Ingalaterra edo Frantzia bezalako botere handi izatera (*Mein Kampf*, 1943). Hasiera batean Hitlerrek ez zuen pentsatzen bera izango zenik Alemania hondamenditik aterako zuen gidaria; gidari horren aitzindaritzat hartzen zuen bere burua (Langer, 2012). Baina, poliki-poliki, Alemania askatu eta berreraikitzekeo Probidentziak bera aukeratu zuela pentsatzen hasi zen. Gertaera bat baino gehiago izan ziren Hitler bere burua gidaritzat hartzera eramanez. Horietako batean, gerra garaian, Hitler trintxeran zegoen, hainbat lagunekin; ahots batek esan zion jaiki eta

beste toki batera joan zedila; ahotsa gardenara eta tematia zenez, jaiki eta trinxeran hoge metro inguru egin zituen, afaria eskuetan zuela; ondoren, jaten segitzeko eseri zen; une horretantxe jaurtigailu galdu batek eztanda egin zuen Hitler lehentxeago zegoen toki berean, eta bere lagun guztiak erail zituen (Hernández, 2012). Horrelako gertakariak gairitu eta ibilbide politikoan aurrera egin zuen neurrian, Führertzat, gidaritzat, aukeratutzat edo mesiasatzat hartu zuen bere burua Hitlerrek.

Poliki-poliki Hitler bere buruaren irudiaz maitemintzen joan zen eta bera gidaritzat hartzen zuten kontakizunez inguratu zen. Hilezkor, Alemaniaren askatzaile eta ordena sozial berriaren fundatzaile bihurtzera deitua zegoela uste zuen (Langer, 2012). Ahalegin guztiak egin zituen ondorengo belaunaldiei bere arrastoak uzteko: autopista handiak eta eraikuntza izugarriak, Hitlerren beraren mausoleoa barne zela.

Denbora oso laburrean Langile Alemaniaren Alderdi Nazional-Sozialista Alemaniako nazionalisten alderdirik garrantzitsua bihurtu zen. 1923ko azaroaren 9an Municheko putsch-a antolatu zuten naziek, Ludendorffen lagun-tzarekin, boterea lortzeko asmoz, baina armada kontra zuten eta porrot egin zuten. Hitler atxilotu egin zuten, eta traizioagatik epaitu ondoren, bost urteko espetxera kondenatu zuten (Payne, 1973; Redlich, 1998; Fest, 1970). Landsberg-eko gotorlekuan egon zen preso, eta han zegoela diktatu zion Mein Kampf Rudolf Hess-i. Idazlan hori antisemitismoz beteta zegoen eta gai nagusiak honako hauek zituen: bizitza-espazioa, arrazen selekzioa, pangermanismoa eta beheko mailako arrazen desagertzea. 1924ko irailaren 2an espetxetik irten zen, bere ametsetako Mercedes autoa erosi zuen eta lege bidetik boterea lortzeko asmoa erakutsi zuen, baina arraza erasokor baten diktadura aldarrikatzen zuen, Führer baten gidaritzapean gauzatuko zena (Fest, 1970, 2005).

1920ko hamarkadan, Alemania berreraikitzen ari zen urteetan, naziek gorakada egin zuten, poliki-poliki; gainera, 1929ko krisialdiak bultzakada berri bat eman zien. Garai horretan erdi mailako klasea desagertua zen, langabezia izugarria zen eta kapitalistak iraultzaren beldur ziren. Hitlerrek enpresario handiengana jo zuen dirua lortzeko. 1928an naziek 491 aukietatik 12 lortu zituzten Reichstag-erako hauteskundeetan. 1930ean, berriz, 107 aukeri lortu zituzten. 1932ko martxoko hauteskundeetan Hitlerrek 13 milioi boto baino gehiago lortu zituen eta Hindenburg berraukeratua izan zen (Kershaw, 2008; Waite, 1977; Fest, 2005). 1933 urteko urtarrilean Alemaniako kantziler izendatu zuten Hitler, Franz von Papen-en sostenguekin, eta koalizio-kabinete bat osatu zuen (Payne, 1973; Redlich, 1998; Fest, 1970). Otsailean Reichstag-eko sutea gertatu zen eta Hitlerrek errepresio bortitza ezarri zuen. Kantzilerak botere bereziak bereganatu zituen eta izua eragin zuen Alemania osoan: apirilean denda juduen boikota gertatu zen; maiatzean alderdi politikoak desegin zituen, juduentzat kontzentrazio-esparruak eraiki zituen eta hilketak masiboak egin zituen SSen bidez. Alderdi nazia aldarrikatu zuten alderdi bakar moduan

eta azaroko plebiszituan Reichstag-erako 661 aulki eskuratu zituen. Alderdi naziaren baitan interes kapitalistak nagusitu ziren eta 1934ko ekainean alderdiko ezkerreko adarra desegin zuten. 1934ko ekainean SAko buruzagiak erail zituzten, «aizto luzeen gauean». Abuztuan Von Hindenberg presidentea hil zen eta Hitler izendatu zuten Führer eta Alemaniako Indar Armatuen komandante; gobernuko eta estatuko buru aukeratu zuten. 1935eko irailean Nuremberg-eko legeak atera zituzten eta juduei beren eskubideak kendu zitzaizkien.

Ondoren, gerra prestatzen hasi zen Hitler: armada berrarmatu, derrigorrezko zerbitzu militarra ezarri, Nazioen Elkartetik erretiratu, Rhin-eko eskualde desmilitarizatua okupatu (Fest, 1970; Fest, 2005). Hitler kantziler bihurtzean, sei milioi langabe zeuden Alemanian; hiru urte geroago, 1936an, alemaniar guztiarentzat zegoen lana (Haffner, 2002); egia da enplegu berri asko armadan sortu zirela, Europako armada indartsuena baitzen Alemaniakoa 1938 urtean, baina enplegu berri guztiak ez ziren armadakoak.

1933 urteaz geroztik, poliki-poliki, propaganda-kanpaina ongi bideratu bati esker, Hitlerren irudi mitikoa landu zuen Goebbelsek. Irudi horren arabera, bereizgarri hauek zituen Hitlerrek: Alemaniako mirari ekonomikoaren gauzatzaile, herriaren sentimenduen aldarrikatzaile, Alemaniaren eskubideen defendatzaile sutsu, Alemaniaren batasun nazionalaren pertsonifikazio, Alemaniako anabasa eta langabezia desagerrarazi zituena, nekazariarentzat lurrak berreskuratu zituena, merkatalgoa eta garraioak sustatu zituena, Versaillesko tratatuaren artikuluak banaka-banaka desegin zituena, 1919an Alemaniari ostutako lurraldeak berreskuratu zituena eta hori guztia odol-isurketarik gabe lortu zuena.

Irudi mitiko horri esker gainditu ziren nazien arteko interes kontrajarri eta gatazka sektario asko. Nazien mugimenduko indar kontrajarriek elkarturik jarraitzen zuten, Hitlerren irudiak indar horien bateratzaile moduan funtzionatzen zuelako. Irudi mitiko horren botereaz kontziente zen Hitler eta gero eta gehiago antzeztu behar izan zuen bere guztiahaltasuna (Haffner, 2002; Langer, 2012). Antzeztu egiten zuen, baina bere gidaritzan sinetsi ere bai: gero eta gaitasun gehiago zeukan bere burua iruzurtzeko. Kalkulatzaile eta oportunistak izateari utzi eta bere hutsezintasunean sinesten hasi zen. 1935etik aurrera oso gaizki hartzen zituen bere hutsezintasunari egindako kritikak (Dietrich, 1957); erasokor bihurtzen zen, gertaerak haren ikuspegiarekin bat ez bazetozen.

## 2.5. Bigarren Mundu Gerra

1938ko martxoan Alemaniako armada Austrian sartu zen eta Austria Alemaniarekin elkartu zen. 1938ko urrian Alemaniak, Britainia Handiak, Frantziak eta Italiak Municheko konferentzian erabaki zuten Sudeteak Alemania-

rekin elkartzea (Versaillesko tratatuaren ondorioz sudeteak Txekoslovakiako zati ziren).

Hitlerrentzat propaganda beharrezkoa zen boterera heltzeko eta propagandarako osagai garrantzitsua zen erretorika. Hitlerren irudi mitikoaren sorreran eragin handia izan zuen haren erretorikarako talentuak. 1939an esan zuen konturatzen zela berdinik ez zuela masen gain eragiteko garaian. Urte horretan zegoen Hitlerren irudia gailurrean.

1939ko urtarrilaren 30ean Hitlerrek Reichstag-ean esan zuen mundu gerra berri bat piztuz gero juduen arraza suntsitu egingo zutela Europan (Kershaw, 2008). Martxoaren 15ean alemaniarrek Txekoslovakia konkistatu zuten. Martxoaren 21ean Danzig itzultzeko eskatu zion Hitlerrek Poloniari. Abuztuaren 23an Batasun Sobietarrak eta Alemaniak itun bat sinatu zuten, elkarri ez erasotzeko. 1939ko irailaren 1ean Alemaniak Polonia bereganatu zuen. Irailaren 3an Frantziak eta Britainia Handiak gerra deklaratu zioten Alemaniari. Irailaren 17an armada sobietarrak Polonia ekialdea bereganatu zuen. Irailaren 29an Alemaniak eta Batasun Sobietarrak Polonia banatu zuten elkarren artean. Azaroaren 30ean armada sobietarrak Finlandia eraso zuen.

1940ko apirilean Alemaniak Danimarka eta Norvegia inbaditu zituen. Maiatzaren 10ean Alemaniak Frantzia, Belgika, Holanda eta Luxenburgo eraso zituen eta Chamberlainen tokia Churchillek hartu zuen Gobernu Britainiarrean (Haffner, 2002). Ekainean Frantzia eta Alemaniaren arteko armistizioa izenpetu zen eta Norvegia errenditu egin zen. Ekainaren 15ean tropa sobietarrek Lituania hartu zuten. Uztailean Britainia Handiaren kontrako eraso agindu zuen Hitlerrek. Irailaren 7an Alemaniako hegazkinek Londres eraso zuten. 1940ko irailaren 27an Japonia, Italia eta Alemaniaren arteko Itun Hirukoitza sinatu zen. Azaroaren 16an 400.000 judu poloniar Varsoviako ghettoan kontzentratu zituzten. Azaroaren 29an Judu Alderraia izeneko filma, Fritz Hippler-ek zuzendua, estreinatu zen Alemanian.

1941ean Alemaniarrek Bulgaria, Yugoslavia eta Grezia bereganatu zituzten. Maiatzaren 10ean Rudolf Hess hegazkinez Britainia Handira joan eta paraxutean jaitsi zen, hango gobernuarekin bakea negoziatzeko. Irailaren 8an alemaniarrek Leningrad inguratu zuten. Irailaren 19an alemaniarrek Kiev hartu zuten. 1941ko abenduaren 1ean Moskura sartzen ez zioten utzi Alemaniako armadari, negu gogorra zela eta. Stalinek kontraerasoa egin zuen. Abenduaren 7an Japoniak Pearl Harbor-en Amerikarren flota eraso zuen. Abenduaren 11n Estatu Batuei gerra deklaratu zieten Italiak eta Alemaniak (Kershaw, 2008).

1942ko urtarrilean Wannsee-ko Konferentzia ospatu zen Azken Irtenbideaz eta juduak kontzentrazio-esparruetara eramaten hasi ziren. Ekainaren 28an Operazio Urdina hasi zen, alde batetik Estalingrad eta bestetik Kaukasoko petrolio lurraldeak eskuratzeko asmoarekin. Abuztuaren 23an alemaniar-

rrak Estalingrad ingurura heldu ziren. Azaroaren 3an britainiarrek Afrika Corps menderatu zuten El Alamein-en. Azaroaren 19an Estalingraden eraso bortitza jo zuten sobietarrek tropa alemaniarren kontra.

1943ko otsailean alemaniarrek errenditu egin ziren Estalingraden; Von Paulus jeneralak Armada Gorriaren esku utzi zuen Estalingrad. Uztailean tropa aliatuak Sizilian sartu ziren. Uztailaren 25ean Mussolinik Italiako erregearen sostengua galdu zuen eta irailean italiarrek armistizioa sinatu zuten aliatuekin. Uztailaren 27an RAF-ak (Royal Air Force) suzko bonbak jaurtiki zituen Hanburgoren gainera eta 40.000 alemaniar erail zituen.

1944ko ekinaren 6an aliatuak Normandian sartu ziren eta Armada Gorriak eraso bortitza jo zuen ekialdean (Fest, 2005). Uztailaren 20an Rastenburg-eko kuartel orokorrean Hitlerren kontrako atentatua gertatu zen eta atentatu horretatik Hitler euforiko irten zen, berriro ere probidentziak aukeratu zela sinets baitzezakeen. Irailean aliatuen tropak Alemaniako mugetara heldu ziren.

1945eko urtarrilean sobietarrek Varsovia konkistatu eta Auschwitz askatu zuten. Otsailean Dresde bonbardatu zuten britainiarrek eta estatu batuarrek. Apirilaren 25ean Elba ibaian elkartu ziren tropa sobietar eta amerikarrak. Apirilaren 30ean Armada Gorriak Alemaniako Parlamentua hartu zuen. Hitlerrek erabaki zuen botereari uko ez egitea, hil arte borrokatzea eta azken unean suizidatzea. Bere buruaz beste egin baino egun bat lehenago ezkondu zen Eba Braunekin. Hitlerrek testamentu politikoa egin zuen eta eremuko komandantei azken mezuak bidali zizkien. Apirilaren 30ean potasio zianuroa hartuz eta garezurrean tiroa disparatuz suizidatu zen Hitler (Fest, 2005; Payne, 1973; Redlich, 1998). Haren gorputza bunkerreko lorategian erre zuten. 1945eko maiatzaren 7an Reicharen indarrak baldintza gabe errenditu ziren.

Laburbilduz, Hitler zoriontsu izan zen jaiotzatik hamaika urtera bitartean: familian amaren seme kuttuna zen eta eskolan, ikasle ona; garai honetan bere buruaren irudi puztua eraiki zuen, amaren babesean. Anaia gaztea hil zenetik gurasoak hil zitzaizkion arte, aitarekin gaizki konpondu zen eta ikasketetan porrota izan zuen; garai horretan saiatu zen bere buruaren irudi puztuari eusten, artean eta abentura liburuetan babestuz, baina ikastetxeko irakasleek eta aitaren jarrerak zalantzan jarri zuten Hitlerren auto-kontzeptu megalomania-koa. Vienako egonaldian umezurtz eta triste sentitu zen: gurasorik gabe eta zaletasun artistikoak aurrera eramateko aukerarik gabe. Garai horretan literatura antisemitan eta Wagnerren operetan babestu zen eta identitate berri baten bilaketari ekin zion. Lehen Mundu Gerrak aukera eman zion armadaren babesean Alemaniaren alde borrokatzeko. Gerra galtzean bere ametsak bertan behera etorri ziren, baina berehala hasi zen bere eldarnioak sistematizatzen eta bere antisemitismoari ideologia baten itxura ematen. Alemaniaren porrotaren erantzuleak aurkitzeari ekin zion eta juduei eta boltxebikeei bota zien

errua. Ondorengo urteetan politikan murgildu zen, antisemitismoan eta anti-marxismoan oinarritutako alderdi bat eraiki zuen eta alderdi hori indartzen egin zituen ahaleginak. 1920tik 1933ra bitartean Hitlerren mitoa eraiki zuen Goebbels-ek eta alderdi naziak gero eta aulki gehiago lortu zituen Reichstagerako hauteskundeetan. Hitlerren auto-kontzeptua berriro ere puztua zegoen. Agintea hartu ondoren, Alemaniako askatasuna bermatzen zuten alderdiak desegin zituen, juduen erbesteratzea eta desagertzea indarrean jarri zituen eta Bigarren Mundu Gerra prestatu zuen. Gerra horretan, Europa bereganatzen, Europako beste herrien askatasuna zapuzten eta juduen kontrako Azken Irtenbidea gauzatzen saiatu zen buru-belarri.

### 3. Hitlerren profil psikopatologikoa

#### 3.1. Berrikuspen laburra

Ikerlari asko saiatu dira Hitlerren bereizgarri psikologikoak deskribatzen. Berrikus ditzagun laburki ikerlari horietako batzuek diotena:

- Jung-ek indibidualtasunik gabeko pertsona moduan, nazioaren edo in-kontziente kolektiboaren arimarekin nahastutako pertsona moduan ikusten zuen Hitler. Horregatik, Hitlerren hitzaldiek inkontziente kolektiboarekin bat egitera eramaten zituelako gelditzen omen ziren entzule arioak hipnotizatuta hari entzutean (Jung, 1977).
- Harvard-eko psikologo ospetsua zen Walter Langer-i Adolf Hitlerren profil psikopatologikoa osatzeko lana eman zioten. Horretarako, Hitler ezagutzen zuten hainbat informatzaile elkarrizketatu zituen Langerren ikerketa taldeak. Langerren ikerlanean nabarmen agertzen da ikuspegi psikoanalitikoak, batez ere haurtzaroko esperientzien eraginaz ari de-nean (Langer, 2012). Autore honek bereizgarri hauek egotzi zizkion Hitlerri: joera masokista, homosexuala izateko probabilitate handia, perbertsio sexualak, ezaugarri histerikoak, Mesias-konplexua, sintoma eskizofrenikoak (haluzinazioak eta eldarnioak).
- Murray-k (1943) haurtzaroko ezintasunak, ahultasunak, tratu txarrak eta laidoak gainditzeko edo konpentsatzeko saio moduan ulertzen zituen Hitlerren nortasunaren bereizgarriak. Egile honen arabera, Hitlerrek sarritan erabiltzen zuen formazio erreaktiboa defentsa mekanismo moduan. Txikitako ezgaitasun eta ahuleziak, txikitako jasandako umiliazio eta irainak, txikitako jasandako harrotasunaren edo duintasunaren kontrako zauriak zeuden Hitlerren portaeraren oinarrian. Alde batetik, gutxiagotasun sentimenduak eta ahultasunak ezkutuan gordetzen zituen eta, beste aldetik, kanpora begira jarrera megalomaniakoa har-

tzen zuen; kanpora begira indarra, odolaren garbitasuna eta emankortasuna miresten zituen. Hitlerrek irainak eta umiliazioak jasan zituen haurtzaroan eta horrek haren harrotasuna zauritu zuen. Barneko ahultasuna eta gutxiagotasun sentimenduak kanpora proiektatzen zituen eta besteak modu errektiboan erasotzen zituen. Ama ere gaizki tratatua zela ikusi zuen txikitan eta amari egindako irainaren mendekua hartu nahi izan zuen gero, aitaren kontrako jarrera hartuz. Ezkutatu egiten zituen amarekiko mendekotasun emozionala, agintearekiko esanekotasuna eta aitaren beldurra. Beregan ikusten zituen bereizgarri negatiboak mespretxatzen zituen, boteretsuak miresten zituen eta besteentz gainetik jartzeko ahalegin jarraitua egiten zuen (Murray, 1943).

Murrayren (1943) eskemaren arabera, Hitlerrek Ediporen konplexu gainditu gabea zuen. Alde batetik, aitaren boterearen mirespena eta bekaitza zituen eta, beste aldetik, amaren ahultasunaren mespretxua. Alde batetik, aita errespetatu eta gorrotatzen eta, beste aldetik, ama mespretxatzen eta maitatzen zuen. Alde batetik, boterea eta nagusitasuna desiratzen zituen, baina, beste aldetik, bere haserre errepremitua deskargatzeko objektuak behar zituen. Poliki-poliki, aitarekiko gorrotoak eta amarekiko maitasunak neurri patologikoak hartu zituzten (Erikson, 1958).

Hitlerrek eskizofrenia paranoidearen sintoma guztiak agertu zituen (Murray, 1943), bere bizitzako uneren batean edo bestean: jelskortasun irrazionala, jazarpen eta guztiahaltasun eldarnioak, proiektzioa. Sintoma horiek guztiak erakutsi arren, ez zuen haustura mental sakonik agertu; aitzitik, proiektzio paranoikoa bere auto-estimua zaintzeko eta alderdi naziaren sua pizteko erabili zuen. Besteengana jaurtikitzen zuen beregan kritikagarria zela iruditzen zitzaiona; horrela, bere burua mespretxatu eta eraso ordeztu, inkontzientean gordetzen zituen bere gutxiagotasun eta erruduntasun sentimenduak eta kanpoko objektuak erasotzen zituen. Mekanismo paranoikoa erabiliz, etsaien krimen eta asmo txarren koadro exajeratu bat margotu zuen, bere alderdikideei sinestarazi zien arioak indartsuagoak eta handiagoak zirela, eta helburuek bitartekoak zuzitzen dituztela. Modu horretara Hitlerrek zorotasunari ihes egin zion: bere burua asmo sozial batekin identifikatu zuen, bere eldarnioak Alemaniari ezarri zizkion eta irrealak zena erreal bihurtu zuen.

- Fromm-en iritziz (1973), Hitlerrek bereizgarri nekrofiloak zituen, nartzisismoaren eta erasokortasun ankerrarekin batera. Pertsona nekrofilo hildakoak, eroritakoak eta ustelduak erakartzen du; bizirik dagoenari bizia kentzeak atsegina ematen dio eta bizirik dauden egiturak urratzeko grina du. Hitlerrek izaera nekrofiloa zuenez, usain txarrek atsegina ematen zioten eta barre egiteko gaitasun gutxi zuen (Hentig,

1964). Bereizgarri anak nabari zitzaizkion eta trebetasun sozialak ez zituen landu. Hitlerren neurosiaren sustriaiak amarengana zuzendutako sentimendu edipiarretan eta intzestuzko loturan aurkitu behar dira. Amaren sinbolo bihurtu zen Alemania Hitlerrentzat eta amarengana zuzendutako desira eta sentimendu edipiarrek Alemaniara lekualdatu zituen; aldiz, gorrotatzen zuen aita desegiteko desira inkontzientea juduengana lekualdatu zuen (Langer, 2012).

- Fritz Redlich-ek (1998) ere aztertu zituen Adolf Hitler masen hiltzaile bihurtzera eraman zuten zergatiak. Redlichentzat Hitlerrek zakilaren malformazio genetikoa (hipospadiasa) eta espina bifida zituen. Errusiarrek autopsia egin ziotenean, ez omen zioten barrabil bat besterik aurkitu, nahiz eta horrelako daturik ematen ez duten bizirik ezagutu zuten sendagileek. Redlichentzat profeta suntsitzailea izan zen Hitler. Gas pozoitsuaren bidez toxikatua izan zenean itsutasun histerikoaren eraso bat jasan zuen. Bestalde, entzumen-haluzinazio batzuek eldarnioak izatera eraman zuten Hitler. Baina, oinarrian, Hitler, gizon gaiztoa zen.
- Waite-n arabera (1977), Adolfek hiru urte egin bitartean haren aita denbora luzez etxetik kanpora egoten zen, bere lanbidea zela eta. Adolf amarengandik oso hurbil zegoen eta sarritan elkarrekin lo egiten zuten ohean. Amarengandik zenbat eta hurbilago, barne-herstura gehiago sentitzen zuen aitarekiko. Ediporen konplexua indar handiz bizi izan zuen. Bestalde, Hitler bere aitarekin eta haren jokaera erasokorrenekin identifikatu zen, amaren alboan ez ezik, erasokortasunean ere aita ordezkatu nahi izan balu bezala. Alde batetik, aitaren onarpena nahi zuen, baina, beste aldetik, aita gorrotatzen zuen eta erail nahi zuen. Gainera, Waitek onartu egin zuen errusiarrek Hitlerri egindako autopsiaren ondoren esan zutena: Hitlerrek barrabil bakarra zuela (monorkidikoa zelako eta kriptorkidikoa zelako izan zitekeen). Klara Hitler, Adolfen ama, asko arduratzen zen semearen higienez eta anatomiaz, eta sarritan egiaztatzen zuen bigarren barrabila agertu zitzaion ala ez. Waitentzat, Hitlerren bereizgarri biologikoen eta amarekiko harremanak identitate arazoa sortu zuten harengan nerabezaroan eta arazo horri aurre egiteko konpromiso osoa eskatuko zion ideologia baten beharra agertzen zuen. Waiten arabera, paziente monorkidikoen desira ia frenetikoa izaten dute eraikuntzak birdiseinatu eta berreraikitzeke. Beren gabezia fisikoak eragindako barne-herstura arindu nahi izaten dute, beste egitura batzuk eraikiz. Waiten arabera, ikuspegi honetatik ulertzen da Hitlerrek bizitza osoan zehar izan zuen arkitekturarako zaletasuna. Hitlerrentzat arkitekturako marrazkiak ziren jabetzarik garrantzitsuenak.
- Mayer-ek (1993) lider arrisksuaren profila ezarri nahi izan zuen eta bereizgarri hauek egotzi zitzaizkion Hitlerri: kritika eraman ezina, besteen

baliogabetzea, etsaien ongizatearekiko mespretxua eta handitasun sentimendua.

— Coolidge, Davis eta Segalek ere (2007) Hitlerri buruzko ikerketen berrikuspenera egin zuten lehenik eta ondoren haren nortasuna aztertu zuten, hura ondo ezagutzen zuten adituen laguntzari esker. Hau guztia Elkarte Psikiatriko Amerikarraren irizpideak (DSM eskuliburua) erabiliz egin zuten eta adituen artean adostasun maila handia gertatu zen. Bereizgarri hauek topatu zituzten Hitlerren izaeran:

- pentsamendu psikotikoak eta eskizofrenia paranoidea.
- jazarpen pentsamenduen, handitasun eldarnioen eta haserrearen konbinazioan oinarritutako bereizgarri sadiko eta antisozialak.
- funtzionamendu kognitiboaren hondamendi handirik eza. Bereizgarri eskizofrenikoak eduki arren, boterea edukitzera, besteen gain eragina izatera eta lanean errendimendu «normala» edukitzera heldu zen.
- emozioen ezegonkortasuna, haserrea, barne-herstura, izaera narritakorra, erabakiak hartu ezina. Gorrotoak eta haserreak erraz gain hartzen zioten, harremanetan traketsa zen eta pertsona arriskutsua bihurtzen zen.
- nortasunaren nahasteen arloan bereizgarri nartzisistak, paranoideak, antisozialak eta sadikoak zituen. Mugako nortasunaren bereizgarri batzuk ere bazituen: pertsonarteko harreman ezegonkorak, identitate sexualeko arazoak, haserrea, suizidiorako joera.
- kexu fisiko ugari zituen, kexu neurosomatikoaren azpi-eskalaren emaitzek erakutsi zuten moduan.
- funtzio exekutiboaren gabeziari dagokionez, erabakiak hartzeko zailtasunaren azpi-eskalan arazoak zituen. Rosenbaum-en arabera (1998), borondate ahuleko pertsona, erabakiak eta ahaleginak gerorako utzi zalea zen Hitler. Murrayren arabera ere (1943), bizitzan aurrera zihoan heinean, Hitlerri gero eta zailago egiten zitzaion erabakiak hartzea.

### 3.2. Garapena

Garapenaren ikuspegitik, gurasoen eragin handia eduki zuten Hitlerren izaeran. Aita gorroto zuen eta ama maite zuen. Schroeder idazkariari esan zion aita ez zuela maite, haren beldur zela; aitak haserrealdiak izaten zituela eta indarkeria fisikoa erabiltzen zuela; ondorioz, ama beti beldurrez egoten zela, semearekin zer gertatuko (Hamann, 1999). Hitlerren aita sarritan mozketzen zen eta Adolfek tabernatik etxera ekarri beharra izaten zuen, 10-12 urte zituenean,

horrek lotsa galanta eragiten bazion ere (Hamann, 1999). Aitak heziketa estilo autoritarioa zerabilen. Estilo honen arabera, haurrak zintzo bete behar zuen agintzen zitzaiona, galderarik egin gabe, eta betetzen ez zuenean, irainak edo zigor fisikoa erabiliko ziren, haurra arrastoan sartzeko. Azkenean, horrela hezitako haurrek ikasten dute ongi portatzen, baina aldarte txarra izaten dute, barne-hersturaz beteak izaten dira eta sarritan nortasun erasokorra eta antisoziala garatzen dute (Baumrid, 1991; Ruchkin, 2002).

XIX. mende amaierako haur gehienek zigor fisikoak jaso zituzten Alemanian. Alice Miller-entzat (1998a) zigor fisikoak eta umiliazioa egon daitezke ankerkeriaren eta mendekuaren oinarrian. Millerrek ez ditu geneetan jartzen ekintza gaiztoen sustraiak, baizik pertsona gaizkilearen haurtzaroko esperientzietan. Alemanian XIX. mendean baziren gurasoei heziketa-aholkuak ematen zizkieten liburu batzuk, hedapen handia izan zutenak. Adibidez, negar egiten zuen haurra isilarazteko, hari ipurdikoak ematea aholkatzen zen. Zigor hori behin edo beste ematea nahikoa zen, haurra isilarazteko. Lehenengo egunetik erakutsi behar zitzaion haurrari negarrik ez egiten. Millerrentzat, zigor fisikoak esaneko haurrak hezten ditu, baina ez du ekiditen haurra erasokor edo gaixo bihurtzea. Agintari nazi askori esaneko izaten irakatsi zitzaien modu zorrotzean, baina ez zuten besteenganako errukia sentitzeko gaitasunik garatu. Emozio mailan ez ziren garatu. Laztantea, musu ematea edo besarkatzea baztertu egin behar ziren, haurraren garapena behaztopatu zezaketelako edo haurra mimatzera eta gaizki heztera eramaten zutelako. Maitasunezko kontaktu fisikorik ez zuten jaso eta bortxaren hizkuntza bereganatzera eraman zituen horrek. Tratu txarrak jasandako diktadoreen artean ezagunak dira, Hitlerrez gain, Stalin, Mao eta Lutero. Stalinen aitak ia egunero jotzen zuen bere semea. Mao ere etengabe jotzen zuen aitak. Martin Lutero bera ere fisikoki zigortu zuten aitak eta amak (Alice Miller, 1998b). Masen hiltzaile izan diren askok bizitzako lehen hilabeteetan tratu txar mental eta fisikoak jasan dituzte. Baina, horrek ez du esan nahi tratu txarrak jasandako guztiak hiltzaile bihurtzen direnik.

Hitlerrek aita gorroto zuen, baina amarekin oso lotura estua zuen (Kershaw, 1998). Amarekin txikitatik lotura positibo estua izan duten haurrek harreman iraunkorragoak eta asebetetzaileagoak izaten dituztela pentsatzen bada ere (Mansour et al., 2008), badirudi Hitlerren harremanik esanguratsuena aitarekikoa izan zela, eta horrek izan zuela eragin gehien haren garapenean (Hyland, Boduszek eta Kielkiewicz, 2011). Ondorioz, atxikimendu saihezkaria eta barne-hersturatu eratu zituen.

Hitlerrek zioen aitak sarritan zigortzen zuela; ez zuela aita maite eta beldurra ziola aitari, haserrealdiak zituelako eta bortxa fisikoa erabiltzen zuelako. Hitlerren aita legez kanpoko semea zen eta familiara ekarri zituen bere konplexuak. Klararen eta Aloisen arteko harremanak nahiko urrunak ziren; horrela, Klarak «osaba Alois» deitzen zion bere senarrari. Aldiz, Adolfek lotura fu-

sionala zuen amarekin, eta denbora luzez eutsi zion lotura horri: bere lagunei esaten zien ez zuela inoiz emakumerik maitatuko, ama maitatu izan zuen bezala. Hitlerrek Alemania Handira zuzendu zituen amarenganako zituen emozioak (Langer, 2012). Amaren salbatzaile izatetik, Alemaniaren salbatzaile izatera pasatu zen: Alemania juduetatik askatu eta alemaniarrei bititza-espazioa eman nahi izan zien.

Nerabezaroan gatazka asko izan zituen Hitlerrek aitarekin. Aitak nahi zuen Adolf funtzionario izatea, baina hark artista izan nahi zuen eta irudimengaren edo fantasiaren munduan jarraitu nahi zuen. Hitlerrek ez zuen nortasunaren garapen handirik izan. Haurtzaroko munduan jarraitzen zuen; bere buruarengan eta bere irudi mentaletan bakarrik jartzen zuen arreta. Helduen munduan, konpromisoaren eta moderazioaren munduan ez zen sartzen. Izaten zituen haserrealdiak haur mimatuaren haserreak ziren. Nortasun inpultsibo, erasokor, egozentriko, hotz, enpatia gabe eta psikotizismo maila altukoa garatu zuen Adolfo (Hyland, Boduszek eta Kielkiewicz, 2011). Artearen munduan ez zuen lortu espero zuen arrakastarik eta armadan lerrokatu zen, heroi bat izateko asmoz. Alemania Handiaren idealarekin identifikatu zen eta etsaiak garaitzeko desira betetzen saiatu zen.

### 3.3. Psikopatologia

- Hitlerren izaera eta psikopatologia ulertzeko beharrezkoa da haren bizitzako lehen urteetan gertatua aztertzea. Hitlerrek berak ematen dizkigu bere bizitzako lehen urteak ezagutzeko datuak. Hitlerren familia berezia izan zen. Haren ama izan zitekeen, adinari begiratuta, aitaren alaba. Aitak jarrera anibalentea hartzen zuen familian, haren jokaera nabarmenki aldatzen baitzen edan gabe edo edanda egotearen arabera. Edan gabe zegoenean, bere duintasunaz eta bere funtzionario izaeraz harro agertzen zen; funtzionario uniforme jantzita eramaten zuen; auzokoei goitik behera begiratzen zien eta zegokion errespetuz agurtzea eskatzen zuen (Langer, 2012). Mozkorturik zegoenean, jipoiak ematen zizkien emazteari, seme-alabei eta txakurrari (Hamann, 1999). Ziurtasuna eman behar zion aitak barne-hersturaz eta ziurtasun gabeziak betetzen zuen. Kontraesan hauek zirela eta, Adolf ezin identifikatu zitekeen eredu iraunkor batekin eta nekez joka zezakeen portaera patroiz garbi baten arabera (Langer, 2012). Mundua arriskutsua, aurrean ezina eta zuzengabea iruditzen zitzaion eta hura ekiditen saiatzen zen.
- Hitlerrek disoziazio nabarmena bizi izan zuen familian aita erasokorren eta ama goxoaren artean. Aita kontrolatzailea eta ama permisiboa zituen. Aita menderatzailea eta autoritarioa zen etxean. Amak Adolfengana zuzendu zuen nagusiki afektibitate: ama eta semearen arteko harreman hauek oinarritzakoak izan ziren Adolfo nortasuna eratzekeo.

Egoera horri erantzunez, Ediporen Konplexua garatu zuen Adolfek: aitaren beldur zen, aita gorrotatzen zuen eta amarekin lotura afektibo estua ezarri zuen (Langer, 2012). Hitlerrek seme bakarra izan balitz bezala hitz egiten zuen bere buruaz. Autobiografiaren zati batean bakarrik adierazi zuen Hitlerrek bere amak beste senide batzuen ardura ere bazuela (*Mein Kampf*, 1943). Adolfek amarekin zuen harremanean jaso gehiago egiten zuen eman baino, izaera nartzisistako nortasun bati zegokion moduan (Fromm, 1973; Torres, 2008).

Nortasun zatikatua zuen Hitlerrek: aldi berean identifikatzen zen maite zuen amarekin eta gorroto zuen aitarekin. Identifikazio bikoitz eta kontraesankor horretan ama mespretxatzen eta aita miresten zituen; pasibotasuna gutxien eta erasokortasuna miresten zuen. Nortasun bat ahula, sentimental eta erabakimen gutxikoa zen; beste nortasuna ankerra, gogorra eta erabakitzailea zen. Frantziak Alemanian zuen enbaxadoreak zioenez (François-Poncet, 1946), bikoiztasunak agintzen zuen Hitlerren nortasunean. Ertz batetik bestera, erabat ona zenetik erabat txarra zenera aldatzen zen; bere jarraitzaile sutsutzat edo etsai amorratutzat hartzen zuen jendea.

Kontraesan horiek gorabehera, kanpora begira, nortasun integratu baten itxura ematen saiatu zen Hitler. Izan ere, nortasunaren disoziazioa ez zen disoziazio osoa, egoera batetik bestera borondatez pasa baitzitekeen. Alemaniaren aurrean nortasun bakarra agertu nahi izaten zuen: egoera zailenei ere zalantzarik gabe aurre egiten dien Führer-arena; baina kanpora erakusten zuen nortasuna ez zen benetakoa; nortasun errearen distortsio bat zen; erreakzio-formazio edo konpentsazio-erreakzio moduko bat. Hitlerrek gertaeren aurrean izango zuen erreakzioa ez zen sarritan ezagutzen: batzuetan pertsona aktibo edo arduradun moduan jokatzeko; besteetan, gerorako uzten zituen eginkizunak.

- Hitlerrek disoziazio histerikoaren eta somatizazio nahastearen sintomak zituen (Murray, 1943). Gazte-gaztetatik era guztietako minak izaten zituen eta adinean aurrera egin ahala, haren sintomak larritzen joan ziren (Heston eta Heston, 1979; Irving, 1983; Payne, 1973; Redlich, 1998). Hitler sintomatologia fisikoaz arduratzen zen, sintomatologia horren esanahiaz baino areago; haren nortasunaren zati garrantzitsu bihurtu ziren sintomak, eta sintoma horiek eragindako ondorearen inguruan antolatu zuen bizitza. Somatizazio-nahastearen atal anitz egoten dira ukituak eta halaxe zeuden Hitlerren kasuan ere: urdail eta hesteetako minak, abdomeneko espasmoak eta karranpak, heste narritakorren sindromea, gihar espasmoak, idorreria, belarritako oihartzunak, hipertentsioa, arteritisa, bihotzeko arazoak, arteriosklerosia, arnasketa arazoak, ibiltzeko arazoak, itsutasun-pasarteak, Parkinsonen sindromea, jaiotzetiko hipospadiasa (zakilaren azpian uretra irekia), txizaren

gaizkoadura usuak, monorkidia, espina bifida. Alemanian agintzen egon zen bitartean hiru nahaste nagusi jasan zituen: gaixotasun gastrointestinala, gaixotasun neuropsikiatrikoa eta miokardio infartua.

Estresa jasateko motibo ugari zituen Hitlerrek: anaiaren, aitaren, amaren eta senideen heriotzak, eskolako porrota, aitaren igurikapenak bete ezina. Tentsio horiek guztiak eremu psikotik arlo fisikora lekualdatzen zituen eta hainbat min-mota jasaten zituen (Paomino, 1981; Erdelyi, 1985; Coolidge, Davis eta Segal, 2007). Beraz, Hitlerren somatizazio-nahastea honetatik dator: dolua mentalki ez lantzetik. Dolu-lana mentalki egiten ez denean, min psikologikoa maila fisikoan agertzen da, eta ondorioz hainbat gaixotasun fisiko agertzen dira. Ikuspegi honetatik, Hitlerrek disoziazio historikoa, itsutasuna eta afonia historikoa (gerra neurosia) izan zituen (Murray, 1943), baina sintoma horiek neurri batean kontrolatzen zituen eta bazekien histeria nola kudeatu.

- Nortasun nartzisistako nahastearen sintomak ere agertzen zituen Hitlerrek: bere buruaren irudi puztua zuen, gehiegizko garrantzia egotzen zion bere buruari, botere eta arrakasta mugagabeen fantasiak zituen, mirespen premia handia zuen eta enpatiarik ez zuen agertzen (Fuchs, 1939; Strasser, 1940). Bere buruaz, bere pentsamenduz eta bere desirez bakarrik interesatzen zen. Etengabe hitz egiten zuen bere ideiei, asmoei, proiektuei eta iraganari buruz, eta mundu erreala proiektu horien luzapena besterik ez zen. Besteek ez zuten berezko baliorik; bere helburuak lortzeko balia zitzakeen neurrian hartzen zuten balioa (Fromm, 1973). Bereizgarri hauek gazte-gaztetatik zituen; horrela uleretzen da gaztetan espetxean zegoela bere autobiografia (*Mein Kampf*, 1943) idatzi izana; edo boteretsuena izateko gogoia adieraziz lagunei egiten zizkien iruzkinak. Hitlerrek uste zuen aukeratua zela, beregandik at zeuden indarrek (probidentziak, patuak) zuzentzen zutela eta misio jainkotiarra zuela (Langer, 2012).

Jendearen aurrean irudi boteretsua agertzen zuen Hitlerrek eta ordezkazina zela iruditzen zitzaion, baina bakarrik zegoenean, hainbat unetan, ahula eta apaldua sentitzen zen. Nortasun puztuaren atzean ni ahula ezkutatzen zuen. Bere burua ahula eta zikiratua (irendua) ikusten zuen, eta izugarritzko lorpenen bidez gaingitu nahi zituen ahultasun sentimendu horiek. Baztertu beharrekoak jotzen zituen ahultasuna, mina eta heriotzaren beldurra (Fenichel, 1945; Langer, 2012). Mespretxua sentitzen zuen ahulekiko eta boteregabeekiko. Begirunea zien boteretsuei. Lagunik ez zuen izan, Kubizek eta zakurra kenduta. Frontean hildakoengatik edo bonbardatutako hiriengatik errukirik ez zuen sentitzen (Fromm, 1973).

Nortasun nartzisistako nahastearen eta biolentziaren arteko lotura nahiko sendoa izan ohi da. Biolentzia erabiltzera errazago jotzen dute

autoestimu puztua eta ezegonkorra dutenek, autoestimu altu egonkorra dutenek edo autoestimu baxu egonkorra dutenek baino (Baumeister, Smart eta Boden, 1996). Autoestimu puztua baina ezegonkorra dutenek mehatxua sentitzen dute besteengandik ebaluazio negatiboa jasotzen dutenean; horregatik, gehienetan baztertu egiten dute ebaluazio negatibo hori. Kritika onartzeak beren burua mespretxatzera eramango lituzkeenez, kritika baztertu eta kritikatzaila erasotzen dute. Hitlerri aplikatu dakioko eskema hau: bere buruaren irudi puztua zuen, irudi puztu horren kontrako kritikak jasotzen zituen, baina ezin zituen onartu; beraz, besteak bihurtzen zituen bere hutsegiteen errudun.

Beraz, hainbat pertsonari gertatzen zaion moduan, Hitlerri zaila gertatzen zitzaion bere irudi puztuari buruzko ebaluazio negatiboak onartzea. Vienako Arte Eskolan baztertu zutenean, denboraldi batez ez zion esan bere lagun Kubizeki baztertua izan zela (Fest, 1970). Nazionalismo alemaniarrek lagundu zion bere irudi puztuaren kontrako mehatxuak ideologia kolektibo batean integratzen. Identitate nazional positiboaren bidez bere hutsegite pertsonalak estaltzen zituen; gaztaroko igurikapenak identitate sozialaren bidez bete zitzaizkeen. Horrela ulertzen da Lehenengo Mundu Gerra piztean sentitu zuen euforia (Langer, 2012). Izan ere, arlo batean Hitlerrek izan zuen porrota, beste arlo bateko garaipenarekin konpentsatu nahi zuen. Horrela ulertzen da I. Mundu Gerraren amaieran sentitu zuen frustrazioa ere: amaren heriotzarekin bizi izan zuen etsipen bera sentitu zuen.

- Hitlerrek pentsamendu eta nortasun autoritarioa zituen, baina haren garaiko beste anitz alemaniarrek ere bai. Nortasun hori zela eta, hainbat alemaniar normalek genozidioan parte hartu zuten. Hitlerren sentimendu nagusiak boterearen, diktaduraren, ankerkeriaren ingurukoak ziren. Ez zen bere buruaz eta besteez fidatzen, askatasunaren ziurtasun gabezia ezin zuen jasan. Hitlerrek besteen atxikimendu osoa eskatzen zuen, inolako kritika eta desadostasunik gabe. Horretarako jendearen ziurtasun gabezia eta beldurraz baliatzen zen. Berekin atxikimendua zutenei erantsita bizi beharra zuen. Ez zen gai beste pertsona bat maitatzeko, pertsona maitatuaren askatasuna zainduz. Bere askatasunari eta beste pertsonen askatasunari beldurra zion (Fromm, 1984). Lotura edo harreman sinbiotikoa sentitu beharra zuen; beste pertsonarekin fusio-natu beharra zuen, bere identitatea eta beste pertsonaren identitatea ezabatuz. Hitlerrek amarekin zuen lotura oso indartsua zen. Aitarekin absentzia zela eta, Hitlerrek ez zuen eten amarekin lotzen zuen zilbor-heste sinbolikoa: amarekin lotura sinbiotikoan jarraitu zuen. Ez zuen amarengandik bereizitako nortasun bat eratu. Hitler gaztaroan sartu zenean, amarekin atxikimendua ideologia naziarekiko atxikimenduaz ordezkatu zuen.

Nortasun autoritarioa duena ez da bere buruaz fidatzen, aske izateko gai ez da; ezin du askatasuna eraman. Pertsona autoritario pasiboa babesgabe sentitzen da bakarrik dagoenean; horregatik, seguru sentitzeko, pertsona handiago baten, erakunde edo kolektibo handiago baten kide izaten saiatzen da eta pertsona edo erakunde hori mitifikatu egiten du. Erakunde edo pertsona boteretsuaren aginduak nahi izaten ditu; agindu horiek betez, erakunde edo pertsona horren zati sentitzen da, eta horrek babes sentimenduak eragiten dizkio. Pertsona autoritario aktiboa boteretsu eta seguru agertzen da besteen aurrean, baina pasiboa bezain beldurtua eta bakarrik dago sakonean; horregatik, pertsona autoritario pasiboaren onarpena behar du, boteretsu sentitzeko. Pertsona autoritario pasiboa boteretsu eta babestua sentitzen da, autoritario aktiboaren zati delako; autoritario aktiboa boteretsu sentitzen da pertsona autoritario pasiboa bere zati delako. Hitlerrek une batzuetan pertsona autoritario pasibo moduan eta beste une batzuetan pertsona autoritario aktibo moduan jokatzaren zuzen (Fromm, 1957). Alde batetik Alemania Handiaren zati izan nahi zuen, lurralde handi baten zati, eta horren aurrean txikia sentitzen zen; beste aldetik, indartsu eta boteretsu sentitzen zen, besteen arreta erakartzeko eta besteak bere proiektura erakartzeko gai zelako; besteen atxikimendua lortzeko gai zen, besteen borondatea kontrolatzen zuen. Hala ere, Hitler mendeko pertsona zen, besteen onarpenaren eta txaloen mendeko. Hitler oso esanekoa zen aristokraten aurrean eta hierarkia maila altuagokoen aurrean.

- Hitlerrek nahaste maniako-depresiboa zuela defendatzen dute ikerlari batzuek (Torres, 2008). Batzuetan lagun artean oso eroso sentitzen zen eta lider rola hartzen zuen. Beste batzuetan, bakarrik eta basoetan zehar alderrai ibiltzen zen (Kubizek, 1953). Hitlerrek nahaste bipolar I-eko sintomak izan zituen, baina ez dago garbi sintoma maniakoak nahaste psikologiko batetik zetozen edo sendagai suspertzaileen (anfetaminen) ondorio ziren (Thrine, 2004; Payne, 1973; Redlich, 1998).

Hitlerrek depresioa eta insomnioak jasan zituen (Langer, 2012); bizitza osoan izan zuen depresiorako joera (insomnio erasoak, nekea, energia galera, pisu irabaztea, suizidio ideiak), baina depresio-aldi nagusiak amaren heriotzaren ondorioz eta Angela Raubal-en heriotzaren ondorioz jasan zituen. Hitlerrek depresio nagusia jasan zuela esan izan da, ia egunero nekaturik, deprimiturik eta energia gabe agertzen zelako eta suizidio ideiak izaten zituelako; baina kontuan hartu behar da, lo hartzeko barbiturikoak eta esnatzeko metanfetaminak hartzen zituela.

Hitlerrek substantzieko mendekotasun handia zuen. Lo egiteko hartzen zituen botikez gain, mina arintzeko opioideak ere erabiltzen zituen. Drogekiko gero eta tolerantzia gehiago agertzen zuenez, antzeko substantziak erabiltzen zituen abstinentzia sindromea ekiditeko; baina,

substantzia ordezkatzailleek ez zuten eragiten desiratutako efekturik; beraz, ohiko drogak eskatzen zizkion Hitlerrek sendagileari. (Heston eta Heston, 1979; Irving, 1983; Erdelyi, 1985).

- Hitlerrek zailtasun handiak zituen harremanetarako. Ezin zuen inor maitatu eta ez zuen espero beste inork maitatuko zuenik. Aitak sarritan jipoitzen zuen eta atetik kanpora egoten zen ama, jipoiak irauten zuen bitartean (Kershaw, 1998). Pertsona bat jipoitua denean eta jipoiazen arrazoiak ulertu ezin dituenean, besteen indarkeriaren mende dago eta bizitzaren aurrean pertsona babesgabe baten jarrera hartzen du. Botere-tsuaren aurrean babesgabe sentitzen zenez, boteretsu izateko premia etengabea zuen Hitlerrek.

Bizi izan zituen familiako esperientziak zirela eta Hitler gizonez eta emakumez mesfidatzen zen eta haienganako sentimenduak erreprimitzen zituen. Jendearengandik urrun jartzen zen Hitler. Bi pertsona baino gehiagoko talde batean solasean ari baziren, besteek hitz egin eta bera isilik egoten zen edo berak hitz egin eta besteek entzun egiten zuten; solasaldi normal bat eramateko gai ez zen (Price, 1937). Sarritan ahanzten zen solaskideaz eta jende multzo bati edo irudimenezko entzuleria bati hitz egiten ari zela zirudien.

Emakumeekin eduki zituen harremanetan ez zuen maitasunik, errukirik eta samurtasunik agertu. Bi emakume mota garbi bereizten zituen: alde batetik, goi mailakoak eta miresten zituenak zeuden; beste aldetik, behe mailako emakumeak, errespetatzen eta miresten ez zituenak zeuden. Portaera masokista zuen miresten zituen emakumeekin: mirabearen jarrera hartzen zuen eta belaunikatu egiten zen emakume horien aurrean. Goi mailakoekin urruneko harremanak edukitzen zituen; besteekin harreman sexualak edukitzen zituen. Emakume batzuek amaren funtzioa betetzen zuten; beste batzuekin, esate baterako, zineko izarrekin, beste harreman mota bat edukitzen zuen (Fromm, 1973; Langer, 1972).

Hitlerrek izaera sadomasokista agertzen zuen harremanetan. Izaera sadomasokista izaera autoritarioarekin erlazionatua dago. Politika mailan autoritarioa denak izaera sado-masokista agertzen du harremanetan. Hitler sadismoaren eta masokismoaren artean kulunkatzen zen: sadismo anker eta indartsuaren eta masokismo ahul eta mendekoaren artean. Alde batetik, joera sadiko eta erasokorra zuen; zartailua eskuan zuela, zerbaitek edo norbaitek kitzikatzen zuenean, besteen edo bere buruaren kontrako kolpeak zartailuz ematen zituen, izterrean, eskuetan edo botetan; ikuspegi sadikotik boteretsuekin identifikatzen zen eta gutxi baloratzen zituen tolerantzia, errukia, bakea edo demokrazia. Beste aldetik, pasibotasunerako, apaldua eta zigortua izateko, masokismora-

ko premia erreprimitua eta inkontzientea zuen. Hitlerren desira sexualak anal-sadikoak ziren behe-mailako emakumeekin, eta masokistak, miresten zituen emakumeekin. Eba Braun mespretxatu egiten zuen, eta harekin harreman sadikoak zituen. Miresten zituen emakumeekin (adibidez, Hanfstaengl-en emaztearekin) harreman masokistak zituen (Fromm, 1973; Langer, 1972). Adibidez, Renée Müller aktorea eta Hitler harreman sexualetara prestatu zirenean, Hitlerrek bere burua lurrera bota zuen, bere burua iraindu zuen eta Renée-ri eskatu zion jo zezala; Renée horretara prestatu zenean, Hitler gero eta gehiago kitzikatzen hasi zen.

Hitlerrek emakume askorekin eduki zituen amodiozko harremanak. Ezagunenak Angela Raubal (Geli) eta Eba Braun izan ziren. Hitlerren biografietan agertzen diren beste maitale batzuek honako hauek dira: Estefania Rabatsch, Henny Hoffmann, Renée Müller, Mimi Reiter, Frau Inge Ley, Suzi Liptauer, Leni Riefenstahl, Sigfrid von Lappus.

Hitlerrek ginandromofia maila altua zuen eta emakumeen bereizgarri dezente zituen: aldakak, eskuak, ibilera, keinuak, grafia. Denbora luzez pentsatu zen Hitler homosexuala zela, itxurarengatik eta alderdian zituen lagun homosexualen kopuruagatik, baina ez dirudi Hitlerrek harreman sexualetan alderdi homosexual hori garatu zuenik (Langer, 2012). Sexualitatearen ikusmenezko osagaiak (voyeurismoa), uzki aroko eta aho aroko osagaiak garatu zituen, osagai genitalak baino gehiago; haren sexualitatea uzki eskualdean eta zikinkeria gaietan finkatua zegoen (Langer, 2012). Adibidez, pornografia eta film lizunak atsegin zituen; atsegin zitzaion bere buruari enemak jartzea edo idazkariak harriduraz beteta uztea, haien ezpainetako arkatzak Parisko ur zikinez eginak zeudela esanez.

### 3.4. Funtzionamendu orokorra

Funtzionamendu orokorrari dagokionez, Hitlerrek ez zuen bizitzan zehar arazo gehiegirik izan errealitatera egokitzeko eta komunikatzeko. Adinean aurrera zihoan heinean eta Alemaniaren egoera okerrera zihoan heinean, erabakiak hartzeko arazo gehiago eduki zituen eta, era berean, aldarte aldaketek eragindako arazo gehiago izan zituen. Bere bizitzako azken urteetan Hitlerrek Parkinson gaixotasunaren aurretiko zeinu batzuk izan zituen: barnerakoitasuna, mesfidantza, erabakimenik eza, zurruntasun mentala, barne-tentsioa, bereizgarri obsesibo-kompulsiboak, mugimenduzko egonezina, egonezin mentala, pedanteria, asaldura, anhedonia eta emakumeekin erlazionatzeko zailtasunak, zeremonia eta erritualetarako joera (Hyland, Boduszek eta Kielkiewicz, 2011).

Hitlerren estilo kognitiboari begiratzeko badiogu, egoera egituratuak zituen gogoko, anbiguotasuna edo ziurtasunik eza nekez eramaten zuen; arazoan aurrean, anbiguotasuna gainditu eta behin betiko erantzuna emateko edo itxiera kognitiborako joera zuen. Guztian ala ezerezean, utopian ala hondamendian, zurian ala beltzean pentsatzeko joera zuen.

Hitlerri erabakiak hartzea asko kostatzen zitzaion. Arazo bati aurre egiteko irtenbide bat baino gehiago zeudenean, zaila gertatzen zitzaion alternatiba horietako baten alde egitea eta besteak baztertzea. Esate baterako, 1942ko udazkenean Hitlerrek, alde batetik, Kaspio Itsaso aldera jo nahi zuen eta, beste aldetik, Estalingrad aldera jo nahi zuen (Dörner eta Guess, 2011). Helburua lortzeko, alternatiba bat hau zen: lehenik Estalingrad konkistatzea eta gero Kaspio Itsaso aldera jotzea. Beste aukera, berriz, hau zen: Kaukasora joan eta petrolio eremuak berehala bereganatu, Estalingrad at utzita. Hitler denbora luzez zalantzan egon zen eta gero bi planak aldi berean aurrera eramatea pentsatu zuen. Hori erabateko zorakeria izan arren, alternatiba bakarrean konprometitu ordez, bi alternatibak aukeratu zituen Hitlerrek (Kershaw, 2008).

Erabaki garrantzitsuak hartzean zalantzan gelditzen zen Hitler, baina gero bat-batean erabakitzen zuen, erabakiaren premisak kritikoki aztertu gabe. Azterketa kritikoa ordez, ilusiozko suposizioetan oinarrituta hartzen zuen erabakia. Alternatiben arteko gatazkak ziurtasun gabezia eta tentsioa igotzen ditu; gatazkak irauten badu, norberarengan jarritako konfiantza galdu egiten da. Ekintzak, berriz, zalantzatik eta tentsiotik askatzen du. Gatazkatik irteteko ekintza bat burutu behar izaten da, eta hori oso ondo praktikatzen zuen Hitlerrek (Dörner eta Guess, 2011).

Hitlerrek erabaki bat hartzen zuenean, erabaki horrek arrakastara eramateko zuen probabilitatea gehiegi baloratzen zuen. Zalantza elikatzen jarraitu ordez, Hitlerrek bere burua errealitateatik aldendu egiten zuen eta ametsetako munduan sartzen zen, han ekiteko. Zalantzaren ondoren hartutako erabakiak zuzentzat hartzen zituen eta izugarritzko garrantzia ematen zien: Errusiako petrolio lurraldeak hartu ondoren, Iranekoak, Siriakoak eta Irakekoak hartuko zituela pentsatzen zuen, eta horrela Britainia Handia petroliorik gabe utziko zuela. Jeneralek besterik esaten bazioten ere, Hitlerrek obedientzia itsua eskatzen zien (Dörner eta Guess, 2011).

Hitlerrek ekintzak planifikatzen zituen, baina ez zuen planifikaturiko ekintzen ondorengo analisi kritikorik egiten. Bere ekintzei buruzko gogoetarik ez zuen egiten. Hitlerren erabakiak ez ziren gogoetan oinarritzen; intuizioz hartzen zituen erabakiak eta zalantzari ihes egiteko bitarteko moduan erabiltzen zituen. Hartutako erabakia aldaezina zela esaten zuenean (Redlich, 1998), kritiketatik bere burua babesteko izaten zen. Hitlerrek sarritan ez zuen gogoetarik egiten eta modu irrazionalean jokatzeko joera zuen; hori zela eta, etsaia ere ustekabe harrapatu izan zuen: espero ez zitekeen moduan jokatzeko zuelako (Dörner eta Guess, 2011).

Hitlerrek erabakiak erraz hartzen zituela esaten bada ere, prozesuaren hasieran erabakiak hartzea asko kostatzen zitzaion; aukera askori aurre egitean, Hitlerrek nekez hartzen zituen erabakiak. Horrek ez du esan nahi aukera guztiak ongi aztertzen zituenik. Barne-ahotsak inspiratu zain egoten zen eta gero, intuizioan oinarrituta, behin-betiko erabakia hartzen zuen. Halder, alemaniar jeneralen buruak honela zioen Hitlerrengatik: Hitler porrotera eraman zuten erabaki militarrek unean uneko bulkadei erantzuten zien izaera bortxa-zale baten emaitza zirela. Hala ere, Errusian gertatutako porrotaren erantzuletzat ez zeukan Hitlerrek bere burua; jeneralen errua izan zen, bere aginduak behar bezala bete ez zituztelako (Dörner eta Guess, 2011). Bere erabaki okerren erantzukizuna besteei botatzearren, erru-hartzaileak bilatzeko aukerarik ez zuen galtzen Hitlerrek. Honela, 1944ko uztailleko erailketa saioaren ondotik Hitler pozik zegoen, atentatu horrek demostratzen baitzuen ofizialek Hitlerren erabakiak saboteatzen zituztela. Beste pertsonak erruduntzat emanda, bere hutsegiteen erantzukizuna hartu beharrik ez zuen Hitlerrek. Hitlerrek ez zuen inoiz atzera egiten, bere borondatez, hartutako posizioetatik. Atzera egitea koldarre-na zen: «Ierroari eutsi ala hil». 1943an Estalingradeko hondamendia gertatu zitzaian alemaniarrei, Hitlerrek ez baitzuen onartu jeneralek aholkatzen zutena, hots, tropak atzera erretiratzea. Jeneralek posizio seguruetara atzeratzeko aholkatzen bazioten ere, Hitlerrek zurrunki eusten zion bere iritziri eta horrek ehunka mila soldadu alemaniarren heriotza eta gerraren galera ekarri zuen. Bizitzaren amaieran oso inpuitsiboa bihurtu zen Hitler eta edozerk ateratzen zuen bere onetik. Ordura arte ez zuen erabakitzen, beharrezko datuak eduki gabe; datu guztiak eduki bitartean aukerak irekita edukitzen zituen; baina, bizitzaren amaieran erabaki irrazionalak eta auresan ezinak hartzen zituen (Dörner eta Guess, 2011; Payne, 1973; Irving, 1983; Heston eta Heston, 1979).

Hitlerrek ezin zituen zalantzan jarri bere teorietako asko, uste horiek defendatzearen milioika pertsona erail baitzituen. Erailketa horiek guztiak ezin zitezkeen zentzugabeak izan; proiektuak jarraitu egin behar zuen, horretan energia asko eman zuelako. Horregatik, Hitlerrek bere testamentua egitean, ez zuen inolako damurik agertu. Desenkusak agertu ordez, salaketak egin zituen: indar armatuen, jeneralen eta Alemaniako Nazioaren errua izan zen.

### 3.5. Beldurra, konspirazioa eta agintea

Hitlerrek beldurraren bidez lortu zuen Alemania gidatzea, baina bera ere beldurraren mendean bizi zen. Beti polizia inguratua zegoen, eraila izateko beldurrez (Redlich, 1998). Izugarrizko segurtasun neurriak hartzen zituen edozein ospakizunetara joan aurretik; trenez bidaiatzen zuenean, SSko 200 agentek babesten zuten. Pertsona guztiez mesfidatzen zen, baita aholkulari hurbilenez ere; Gestapoaz eta bisitatzen zuten jeneralez ere mesfidatzen zen. Eraila izateko, traizionatua izateko, goizegi hiltzeko edo benetan ezagutua izateko

beldurra zuen (Langer, 2012). Lo egiteko beldurra zuen eta bat-batean esnazen zen, garrasika eta izerditan. Hitler pertsona ausart moduan aurkezten zuten haren aldekoek, baina ezaguna da, esate baterako, beldurra ziola eskualdeko liderrekin elkarteari; haiekin bildu baino lehen saiatzen zen gehien-goan zein talde zegoen jakiten, talde hark defendatzen zuena defendatzeko.

Hitlerrek konspirazioetan sinesteko joera zuen; pentsatzen zuen juduek mundua kontrolatu nahi zutela eta horretarako masoneriaz eta komunistez baliatzen zirela. Hitlerrek erabaki zuen etsaiak, juduak, ijitoak eta akatsak dituzten pertsonak ezabatu egin behar zirela; Alemania Handi bat eraiki behar zen arraza arioko pertsona indartsu eta osasuntsuekin. Milaka urte iraungo zuen Reich indartsu bat eraiki nahi zuen, enpatia eta goxotasunik gabekoa. Hitlerrek botere beharra eta babesgabeziaren beldurra zituen; besteen aurrean boterea zuela erakutsi beharra zuen. Gai zen besteei min egiteko, boteretsua zela erakustearren, 1944ean bere kontrako atentatua prestatu zutenekin egin zuen moduan: konspiratzaileak poliki-poliki eta ankerki erail zituzten, hilketak grabatu zituzten eta Hitlerren jarraitzaileek konspiratzaileen azken konbultsioak ikusi zituzten (Fest, 1974).

Hitlerren portaera gidatzen zuen motibazioa agintea lortzea eta mantentzea zen. Oso sentibera zen bere aginteari ezartzen zitzaizkion muga eta herzapenekiko. Oposizioak eta frustrazioak izutu egiten zuten (Langer, 2012). Horregatik, oposizioaren gainetik egoteko, boterea handitu beharra zuen. Oposizio indartsuarekin topo eginez gero, frustrazioa sentitzen zuen eta honelako erreakzioak izaten zituen: emozioen eztanda, inertzia eta malenkoniaaldiak, kontraeraso kementsua.

Hitlerrek gaitasunak bazituela demostratu nahi zion bere buruari eta horretarako hartzen zituen erabakiak. Pertsona gaitua zela demostratzeko, hartutako erabakiek arrakastara eramango zutela pentsatzen zuen, horretarako aukera handirik eduki ez arren. Pentsatzen zuen bere aginduek arrakasta bideratuko zutela eta ez zuela hartutako erabakia berriro egokitu beharrik izango (Redlich, 1998). Hitlerrek konfiantzaz beterik zegoenean egiten zituen gerrako kontraerasoak eta ongi irten zitzaizkion hainbat urtez. Baina, konfiantza galtzen zue-nean, Errusiako frontean gertatu zitzaion moduan, defentsa egituraturik ez zuenez, blokeatua geratzen zen. Guztia ala ezerezaren dinamikan mugitzen zen. Errusiako frontean ez zuen atzera pausorik eman nahi izan, estrategiak eta jeneralek besterik aholkatu arren. Suizidatu baino lehentxeagora arte Hitler sinetsita zegoen modu batera edo bestera gerra irabaziko zuela.

### 3.6. Erretorikarako zaletasuna

Gazte-gaztetatik hizlari trebea izan zen Hitler (Payne, 1973; Redlich, 1998). Asko saiatu zen propagandak gizakiengan duen eragina ulertzen; sin-

boloek, koloreek, formek jendearen emozioetan duten eragina aztertu zuen (Olsen, 2012).

Hitlerrek jakin zuen masen garrantzia baloratzen; gazteen sostengua irabaztea ezinbestekoa iruditzen zitzaion, proiektu bat aurrera eramateko. Antolamendu politikoaren eta propagandaren beharra ezagutzen zuen. Bazekien masak ideologia batean oinarrituta antolatzen zirela eta liderrek gazteriar irekita egon behar zutela. Jende multzo handi bati hitz egitean, lehenik emakume eta haurrei hitz egin behar zitzaizela zioen, eta gero gizonei. Alemaniar ertainaren premia eta sentimendu intimoenak identifikatu behar ziren eta hizkuntza apasionatu batean adierazi behar ziren. Masen gose espirituala asebate behar zen. Hitler gai zen gatazkan dauden gizakien indarrak metaforen bidez irudikatzeko eta gizakiak ekintzara bideratzeko. Ekintza politikoa emozioetan oinarritu behar zela zioen; artea eta drama beharrezkoak iruditzen zitzaizkion ekitaldi politikoak antolatzerakoan; zentzu honetan, artistek eskuhar zezaketen mitinetan eta ekitaldi politikoetan, intentsitate dramatiko handiko giroa sortzeko (Langer, 2012).

Hitlerrek mendetasun handia zuen bere irudiarekiko. Horregatik arreta handiz irakurtzen edo ikusten zituen berari buruz ateratzen ziren berri eta argazkiak (Langer, 2012); bilerak bat eteteko gai zen, berari buruzko argazki edo berriak begiratzeko. Bere gabeziak estaltzen etengabe saiatu zen; esate baterako, betaurreko beharra zuen eta Parkinson gaixotasuna ere bai, baina betaurrekorik ez zuen erabiltzen eta Parkinsonaren dardara mozorrotzen saiatzen zen, besoak atze aldean gurutzatuz.

Irudiari garrantzi handia ematen zionez, Goebbels-en eta bien artean eraiקי zuten Hitlerren irudi mitikoa. Nazien propaganda aparailuaren arabera, honelakoa zen Hitler: guztiahaltsua, Alemaniaz maitemindua, haurren eta zakuraren maitale, oso diziplinatua, borondate handikoa, energia eta erresistentzia indartsukoa (egunean 18 ordu lan egiteko gai zen), erabakimen handikoa, etsipen egoeretan ere itxaropena galtzen ez zuena, arazoak sinpletzeko eta gatazkak ebazteko trebetasun harrigarrikoa, egonarritsuak, ausarta, orekatsua, leiala eta justizia zalea (Langer, 2012).

Erretorikaren bidez lortu nahi izan zuen Hitlerrek boterea. Trebea zen metaforen, irudien eta mitoen erabileran. Hitlerren hitzaldiak luzeak, errepikatzaileak eta gaizki egituratuak ziren, baina jendeak entzun nahi zuena esateko eta jendearen alderdi emotiboa ukitzeko gaitasuna bazuen (Langer, 2012). Jendearen sinpatia eta babes-sentimendua pizteko gai zen. Bihotzetik eta burutik hitz egiten zuen (Goebbels, 1978). Masei hitzaldi bat ematean, argudioak eta frogak albora utzi behar dira; sentimenduak eta sinesteak baliatuz, azken-jomuga aurkeztu besterik ez zaie egin behar (*Mein Kampf*, 1943).

Hitzaldiak emateko ordurik egokienak jendea nekatuen dagoen orduak izaten direla eta, saiatzen zen hitzaldiak berandu jartzen, jendeak gaitasun

kritikoa eta erresistentzia jaitsiak zituenean, nekearen ondorioz. Mitinetan poliki-poliki, ahots baxuaz eta etendurekin hasten zen hizketan; ezarian-ezarian jendearekin konektatzen zuen, eta suspertzen joaten zen (Langer, 2012). Espirituak hartuta bezala, grinaz beterik, hitz egiten zuen: masaren premia eta desirak bere egiten zituen eta konbikzio handiz adierazten zituen. Jendearen desira primitiboena eta ideal gorenak pizteko gai zen. Entzuleek isilean pentsatzen zutena, baina esateko gai ez zirena, hitzetan jartzeko gai zen. Entzuleen sentimenduekin konektatzen zihoan neurrian, egoera pasibotik egoera aktibora iragaten zen, herabetasun-egoeratik erasokortasun-egoerara. Pentsatzen zuen masa handien psikeak ahulei ez diela erantzuten; indartsuak nahia-go dituztela ahulak baino, agintariak nahia-go dituztela mendekoak baino. Entzuleen atxikimendu osoa eskatzen zuen. Hitzaldiaren une gorenean Hitler kulunkatu egiten zen eta entzuleak ere harekin batera kulunkatzen ziren; makurtzen zenean, jendea ere harekin batera makurtzen zen. Gorteiatu behar den emakume batekin alderatzen zituen masak; txikitan haserrearen bidez amarengandik edozer lor zezakeen moduan, hitzaldietan jendearengandik gauza bera lor zezakeela pentsatzen zuen.

Hitlerrentzat, ahozko hizkuntzak idatziak baino eragin handiagoa du jendearengan; mugimendu handiak eragiteko gaitasun gehiago dute hizlariak, idazleak baino (Mein Kampf, 1943). Hizlariak entzuleengan eragina izan nahi badu, mezua errepikatu egin behar du; ideia gutxi eman behar ditu hitz egitean, baina haiek errepikatu egin behar ditu. Errepikatzen ez dena ez dute gogoratzen masek, baina gogoratu egiten dute askotan errepikatzen zaiena (Mein Kampf, 1943). Hizlariak ideiak exajeratu egin behar ditu, esandakoa gogoratzea nahi baldin badu. Jendeari hitz egitean matizazio gutxi erabili behar da; kontraste nabariak, zuri eta beltzaren artekoak bezalakoak, erabili behar dira. Propagandarako erabiltzen den erretorikan helburuek bitartekoak zurriz dituzte; helburua lortzeko gezurra esan behar bada, esan egin behar da, baina ez erdizkako gezurra, gezur handia baizik; gezurrak sinetsi egiten dituzte entzuleek, behin eta berriro errepikatzen badira. Hitlerrentzat, juduen asmakizuna da kontzientzia; kontzientziaren eta moralitatearen morrontzatik askatu egin behar dira gizakiak (Rauschning, 1940). Gizakia gidatu behar duena pasioa da, ez arrazoia. Emozioen eta sentimenduen arabera jokatu behar dute gizakiek eta ez arrazoiaren arabera.

Hitlerrek sorgortu egiten zituen entzuleen gaitasun kritikoa, hitzaldian aurrera egin ahala (Langer, 2012). Ez zien uzten entzuleei hozten eta urruntzen. Entzuleen arreta etsai batengan kontzentratzen zuen eta gaizki zihoan guztiaren erantzule edo errudun etsai hori bihurtzen zuen. Etsaiari ez zion ezer barkatzen.

Hitlerrek entzuleria bat behar zuen, bizirik sentitzeko. Entzungo zion jendea aurkitu zuen kuarteletan eta Municheko garagardotegietan. Horrelako

pizgarririk gabe, pertsona nagia eta alferra zen; berandu jaiki eta alfer bizitza zeraman: egunkariak irakurri, filmak ikusi eta bilerak egin. Hitler estilo legegileko pertsona zen; funtzionamendurako araubideak eta orientabideak ematen zituen, eta berak erabakitakoa aurrera eramateko estilo exekutiboko jendea behar zuen inguruan. Ez zen gai laneko ordutegi bat eramateko. Oheratzeko eta jaikitze orduak asko aldatzen zituen (Langer, 2012). Ingurukoei hitzaldi luzeak ematea asko gustatzen zitzaion; hitzaldi horietan etorkizunerako zer zuen proiektatua eta iraganean zer egin zuen kontatzen zuen; arratsaldeko 8etatik goizaldeko 3rak arte jardun zitekeen inguruko emakumeei istorioak kontatzen; istorio horiek sarritan errepikatzen zituen eta edozein arazo ebazten zuen istorio horietan. Darwinismo sozialari edo bizitza-espazioari buruzko pentsakizunak ere sarritan kontatzen zituen, besteak eta bere burua konbentzitzeko. Ez zitzaion gustatzen bakarrik egotea edo ohera bakarrik joatea. Laguntzaileei deitzen zien maiz konpainia edukitzeko. Sarritan egunsentia baino lehen ez zen oheratzen. Filmak ikusten, berriak edo musika entzuten eta solasean ematen zuen gaua.

### 3.7. Sormena

Pinturaren eta arkitekturaren bidez eman zion Hitlerrek irteera bere sormen premiari. Bi joera nabarmen nabari zitezkeen harengan: 1) Alde batetik, sunsitzeko premia handia zuen; joera handia zuen hiriak eta pertsonak ezabatze; sarri egiten zituen birrindutako elizen eta hiri deseginen koadroak; gerran hainbat hiri desegin zituen; Paris desegiteko agindua eman zion Speer bere arkitektoari, hark obeditu ez bazion ere (Speer, 1970); Leningrad eta Alemania bera ere desegin nahi izan zituen (Fromm, 1973). Eraikuntzak eta hiriak ez ezik, pertsonak ere desegin nahi izan zituen: juduak, poloniarak, akats fisiko edo psikikoak zituztenak edo gaixotasun sendagaitzak zituztenak. 2) Beste aldetik, eraikitze premia handia zuen Hitlerrek: hainbat autopista, monumentu eta egoitza eraiki zituen. Arkitekto handitzat zeukan bere burua (Fest, 2005) eta denbora asko ematen zuen gaztelu izugarriak margotzen eta hiriak edo mausoleoa planifikatzen. Bi joera horiek, desegitekoa eta eraikitzekoa, elkarri lotuak ikusten zituen Fromm-ek (1973); gauzak eta pertsonak ezabatze zuen grina eraikitze zuen grinarekin lotua ikusten zuen. Arkitekturarako eta eraikuntzarako zaletasuna ezabatzeko desirarekin lotua zegoen Hitlerrengan, ezabatzeko desiraren ondorioak eraikuntzaren bidez konpentsatu nahi izan balitu bezala. Murray-k dioenez (1943), arkitekturak aukera ematen zion Hitlerri ezabatzeko desira primitiboa orekatzeko.

Hitlerri gustatzen zitzaion bere burua musika zale edo musika aditu moduan aurkeztea. Wagnerren musika erlijio modukoa zen harentzat; esan izan da, Wagnerren operen bidez kodetutako mundu mitologikoa errealitate politiko eta sozial bihurtzea besterik ez zuela egin Hitlerrek (Köhler, 2000). Edo-

zein modutan, musikari antisemita horrek hartu zuen estatus gorena nazien Alemanian. Baina, ez dirudi Hitlerri musika ona bereziki gustatzen zitzaionik; gutxitan joaten zen operara, Wagnerren festibaletarako jaiera berezia baldin bazuen ere.

#### 4. Hitlerren jarrera antisemitikoa eta Holokaustoa

Hitlerrek Holokaustoa bete zuen funtzioa zehazterakoan, batzuek Hitlerren beraren bereizgarriei ematen diete garrantzia; ikuspegi pertsonalista honetatik, Hitlerren helburuek eta asmoek eragin nabaria izan zuten juduen jazarpean. Beste batzuek, berriz, ikuspegi estrukturalistagoa hartzen dute: juduen aurkako politika modu ez-sistematikoan gertatu zela esaten dute, hots, juduen desagertze fisikoa ez zegoela aurrez zehazki planifikatua, erradikaltzea progresiboa izan zela eta *ad hoc* erabaki asko hartu zirela (Kershaw, 2008).

- Ikuspegi pertsonalista-hitleristik Hitlerren irudiari garrantzi handia ematen dio. Hitlerrek seilu berezia ezarri zion Alemaniako nazien antisemitismoari. Haren eldarnio sistematizatuaren arabera, juduak ziren herri arioen etsairik gogorrenak; juduak zeuden boltxebismo sobietarraren atzean, marxismoaren atzean eta sozialdemokraziaren atzean; juduen mehatxuaren pean zeuden alemaniarak. Horregatik desegin behar ziren juduak eta juduen arazoari azken irtenbidea emateko egin zuen 1939ko urtarrilaren 30eko Reichstag-eko iragarpena. Juduen eta boltxebikeen arteko lotura zen Hitlerrek eta Goebbels-ek partekatzen zuten eldarnio sistematizatuaren zutabeetako bat. Horregatik eraso zuen Alemaniak Sobietar Batasuna eta horregatik bidaltzen zitzaizkion Hitlerri SS-ek ekialdean egiten zituzten juduen kontrako eraso txostenak (Torres, 2008; Kershaw, 2008). Hitlerren eldarnio sistematizatuan, juduen kontra defendatzean, Sortzaile Gorenaren lana aurrera eramaten ari zen Hitler.

Antisemitismoa gertaera arrunta zen XIX. mendeko Europan. Oso hedatua zegoen Errusian, Austrian, Frantzia, Alemanian eta beste hainbat lurraldetan. XIX. mendeko antisemita ezagunak izan ziren Richard Wagner, Gobineau-ko kondea eta Houston Stewart Chamberlain (Torres, 2008). Hitlerren antisemitismo bortitza Vienan izan zuen bizipen batetik sortu zen. Goseturik eta deprimiturik Vienako kaleetan zebilen horietako batean, haluzinaziozko bat-bateko agerpen bat izan zuen. Agerpen horretan kaftan beltz batean bildutako judu bat ikusi zuen (Mein Kampf, 1943; Kershaw, 1998). Bizipen horrekin lotuta sortu zen juduen inguruko eldarnioa: bazter guztietan (kulturan, artean, politikan) juduak ikusten eta juduak bere etsai eta jazartzaitzat hartzen hasi zen. Eldarnioa kroniko bihurtu zen, sistematizatu egin zen eta bere

mundu-ikuskeraren oinarrizko osagai bihurtu zen. Hala ere, eldarnio sistematizatu horrek ez zituen Hitlerren gaitasun mental guztiak harripatu: haren egitura mentalaren multzotik bereizi eta enkistatu egin zen (Torres, 2008).

Juduen aurkako erasoak, 1933ko boikotetatik hasi eta Treblinka edo Auschwitzeko gas-kameretaraino, Hitler diktadoreak nahi izan zuelako gertatu ziren. Dawidowicz-en arabera (1986), Hitler Pasewalkeko ospitalean zegoenean, 1918an, sortu zen Azken Irtenbidearen ideia; ideia hori *Mein Kampf*-en garbi geratu zen eta Barbaroja operazioan oraindik bizirik zegoen. Flemingek (1984) Hitlerren antisemitismoa eta juduen kontrako gorrotoa azpimarratu ondoren, hark Holokaustoaren garapean izan zuen erantzukizun pertsonala azpimarratzen du. Antisemitismo hori xurgatu zuen Linzen eta Vienan 1904az geroztik, eta horrek eraman zuen 1941etik aurrera masak erailtzera edo bunkerrean eldarniozko testamentu hura idaztera.

Azken Irtenbideari ekiteko Hitlerrek agindu esplizitu bat eman zuela diotenen artean desadostasuna dago aginduaren datari buruz. Batzuek diote juduak erailtzeko erabakia 1941eko udan hartu zela, sobietarren kontrako gerraren amaiera hurbil ikusten zenean. Beste batzuek ez dute uste erabakia fase euforiko horretan hartu zenik; aitzitik, uste dute erabakia udazkenean hartu zutela, sobietarren kontrako gerra luzatu egingo zela zirudienean eta juduak Batasun Sobietarrera erbesteratzeko aukera lurrundu zenean (Kershaw, 2008).

Browning-ek (2004) ere zuzendaritza zentralari ematen dio garrantzia eta esaten du Hitlerrek agindu bat eman zuela 1941eko udan, eta hori garbi geratu zela 1941eko uztailaren 31n Göringek Heydricki emandako aginduan: juduen arazoaren irtenbide osoa presta zezala. Agindu hori gerra ostean Alemaniak ekialdean izango zuen lurraldeari begira zegoen (Burrin, 1989). Ondorengo hilabeteetan juduen kontrako erasoak erradikalizatu egin ziren, kontraesanak eta inprobisazioak barne.

- Ikuspegi estrukturalistarentzat, Azken Irtenbidea ez zen Hitlerren agindu batetik irten, besteak beste, erabakiak atzeratzeko joera zuelako Hitlerrek. Broszat-entzat (1985), juduak erailtzeko agindu orokorrik ez zen egon. Erbesteratze planetan arazoak egon ziren, Batasun Sobietarraren frontean zailtasunak sortu zirelako 1941eko udan eta udazkenean; hori zela eta, ekialdean okupatutako lurraldeetan juduak erailtzen hasi ziren. Erailketa programa mailakatu bat garatu zen, eta deuseztatze-esparruak eraikitzean hartu zuen forma orientabide orokor horrek. 1941eko udazkenean arte juduen deportazioa zen helburu; baina, Batasun Sobietarraren inbasioak porrot egin zuenean, deportazio planak burutzeko zailtasunak sortu ziren eta juduen arazoa ebazteko ekimen lokalak ager-

tu ziren. Sobietar Batasuneko frontean gertatzen zenaz gain, kontuan hartu behar da Churchilllek eta Rooseveltek Karta Atlantikoa sinatu zutela 1941eko abuztuan, eta horrek esan nahi zuen Alemania berehala izango zela EEBBekin gerran. Ekimen lokal horiek ez ziren Nazien agintari gorenetatik irten, haiek *a posteriori* onartu egiten bazituzten ere. Broszaten arabera (1985), Hitlerrek onartu eta zilegiztatu egiten zituen bigarren mailako agintariak hartutako erabakiak; beraz, Hitlerrek ez ezik, beste hainbatek ere izan zuten erantzukizuna juduen kontrako erasoetan. Hitlerrek distantzia bat ezarri nahi izan zuen bere irudiaren eta juduen erailketaren artean; horregatik, lider naziazen borondatean baino areago, ekintza burokratiko inprobisatuetan ikusi behar da Azken Irtenbidearen gidaritzatza. Oinarrizko ideian ados zegoen Hitler: Alemaniak juduak desagerrarazi behar ziren, baina desagertzen zirenean hainbat estadio garatu ziren, aurrez planifikatuak ez zeudenak (Kershaw, 2008).

Götz-ren (1999) arabera ere, ez zen gertatu Hitlerren erabaki sinple berezirik Europako juduak erailtzeko, baizik erabakiak hartzeko prozesu luze eta konplexu bat. Gerlach-en arabera (1998), juduen kontrako hainbat neurri hartu ziren 1941eko udan eta udazken goiztiarreen; genozidio-ekintzak indarra hartzen joan ziren, baina juduen kontrako ekintza horiek koordinatu gabeak ziren. Agintari naziek 1941eko udazkenean tokian tokiko erabaki erradikal ugari hartu zituzten, juduak desagerrarazteko. Adibidez, Belzèc-eko deuseztatze-eremua 1941eko azaroan eraiki zen, SSko polizia buruak planifikatuta. Prozesu horretan zehar Hitlerrek lider nazien erabakien arteko epailari lana egin zuen. Brayard-en ustez (2004) programa orokorra 1942an hasi zen, Heydrick Pragan erail ondoren. Heydricken hiletan Himmlerrek esan zien SSko liderrei juduen kanporatzea urte horren barruan gauzatu behar zela.

Ikuspegi estrukturalistak ez du ukatzen Hitlerren erantzukizun politiko pertsonala; izan ere, Azken Irtenbidea nekez gerta zitezkeen Hitlerren fanatismo antisemitikorik gabe. Baina, ikuspegi horrek hedatu egiten du erantzukizuna edo erruduntasuna industriara, burokraziara eta armadako agintari ez-nazietara. Hitlerrek ez zuen ekimen berezirik hartu beharrik izan; prest zeuden alderdi naziazen oinarriko aktibistak edo SSetako eta Gestapoko agintariak ekimen bereziak hartzeko; era berean, prest zegoen hainbat jende juduei beren ondasunen jabetza kentzeko, interes ekonomikoengatik. Esate baterako, 1933ko apirilko juduen negozioen kontrako boikot nazionala alderdiko erradikalen eraginaren ondorioz gertatu zen. Nurenberg-eko legeak ere behe mailako ekintzaileren eraginez atera ziren (Kershaw, 2008).

Hitlerrengan bi alderdi bereiz zitezkeen (Kershaw, 2008: 1) Alderdi positiboa: Alemaniaren batasuna, handitasuna eta harrotasuna defendatzen zitue-

na; 2) Alderdi negatiboa: etsai judu eta boltxebikearen desagertzea, fisikoki eta mentalki ahulak zirenen desagertzea sustatzen zuena. Hitlerrek Alemaniaren handitasuna lortu nahi zuen, juduak eta boltxebikeak menderatuz. Juduen kontrako jarrera erradikala hartu zuen, baina ibilbide politikoan zehar, jarrera hori egokitu egin zuen nazioarteko ingurunearen interesetara. Hasieran ez zuen juduen aurkako joera nabarmenik; antisemitismo bortitza Vienako egonaldian hasi zen, kaftan beltzeko juduaren haluzinazioarekin; antisemitismo horrekin lotutako eldarnioaren sistematizazioa Lehenengo Mundu Gerraren ostean egin zuen (Torres, 2008). Alemaniaren hondamendia juduei egozten hasi zen eta hondamendi horrek sortutako sentimendu negatiboak gairatuz, juduen eta boltxebikeen kontrako erasoari ekin zion. Horrela, Hitlerren jarrera antisemita 1919an nabarmendu zen; erabat konbentziturik zegoen juduak eta gerra elkarrekin lotuak zeudela; *Mein Kampf*-en dioenaren arabera, milioika alemaniar ez ziratekeen hilko 12-15 mila judu gasez pozoituak izan balira. Hitlerrek ideia hauei tinko eutsi zion, politikan sartu zenetik bunkerrean hil zenera arte.

Lehen Mundu Gerraren hasierako Hitlerren euforia eta gerra horren amaierako Hitlerren depresioa ikusita eta Hitlerren nartzisismoa ezagututa ulertzen da Alemaniaren porrota kanpoko faktoreren bati egotzi beharra. Hitler nazionalismo alemaniarrekin identifikatu zen, eta nazionalismo horrek joera zuen bere porrotak juduei egozteko (*Mein Kampf*, 1943). Gerra galtzearen errua juduei egotzi zion. Hitler bera hasiera batean antisemita ez bazen ere, Vienako kaftan beltzeko juduaren agerpenak juduen kontrako jarrera emotiboa txertatu zion eta geroztik, juduei buruzko iritzia negatiboa konfirmatuko zuten datuen bila hasi zen eta zerbait desagokoa zegoen tokian juduak ikusten zituen. Zikinkeria zegoen toki bakoitzean gutxienez judu bat aurki zitekeela esaten zuen (*Mein Kampf*, 1943), konfirmazioaren eta egiaztapenaren estrategia erabiliz. Noski, horrelako baieztapen bat egia gertatzen da, ez juduen kasuan bakarrik, baizik beste edozein talde sozialen kasuan ere bai.

Hitlerren antisemitismoa indartzen joan zen 1920az geroztiko hitzaldietan; hasieran antisemitismoak hartzen zuen toki nagusia; gero, 1923an, antimarxismoa gaineratu zitzaion. Hitlerren ideologiaren oinarrian uste hauek aurkitzen ziren: Alemaniak nagusi izan behar zuen Europako nazioen artean; Alemaniak luzaz iraun ahal izateko bizitza-espazioa eskuratu behar zuen eta juduak desagerrarazi behar ziren. Helburu horiek lortzeko juduen boltxebismoa eta Batasun Sobietarra desegin behar ziren.

Hitler antisemita bihurtu zen eta antisemita izaten jarraitu zuen, hil arte, baina antisemitismo hori mozorrotu egiten zuen batzuetan, atzerriko politikako interesengatik eta Hindenburg-en inguruko goi mailako klasea ez asaldatzearen. Horrela, 1930ean antisemitismoa ez zen izan Hitlerren mintzagai nagusia; 1932an ere, Reichstag-eko presidente izateko aurkeztu zenean, juduen arazoa bigarren mailan gelditu zen; lehen maila antimarxismoak hartu

zuen, nahiz eta Hitlerrentzat marxistak eta juduak erabat nahastuta egon. 1933an, botere guztiaren jabe egin zenean, Alemaniako lider komunista gehienak atxilotu eta kontzentrazio esparruetara eraman zituen (Olsen, 2012). Sarritan alderdiko erradikalenek juduen kontrako ekintza basatiak eskatzen zizkieten alderdiko gidariei, eta orduan goikoek juduen diskriminazioa antolatzen zuten. Horrela, 1933 eta 1939 bitartean hartutako juduen kontrako erabakiek Hitlerren onarpena izan zuten.

1933 eta 1934ko Hitlerren hitzaldietan ere toki gutxi hartu zuen juduen arazoak, nahiz eta juduen negozioren kontrako boikota proposatu. 1935ean atera zituzten Nurembergeko legeak (juduei Reicheko hiritartasuna eragotziz) eta 1937an bortizki eraso zituzten «judu boltxebikeak», gidari sobietarren %80 juduak zirela esanez. 1938an juduek Alemaniatik eta Europatik kanpora egon behar zutela esaten zuen Hitlerrek eta udazkenean Alemanian bizi ziren judu poloniarrek jaurtiki zituen. 1938ko azaroaren 9 eta 10 arteko gauean («kristal hautsien gauean»), SAko tropek hiritar juduak eta haien ondasunak eraso zituzten; hainbat judu erail eta haien eskolak, dendak eta sinagogak suntsitu zituzten. Alemaniak Polonia bereganatu zuenean, areagotu egin zen juduen arazoa, Alemaniako juduek sortzen zuten arazoari Polonian zeuden hiru milioi juduek sortutakoa erantsi behar baitzitzaion.

1939an Hitlerrek Reichstag-aren aurrean iragarri zuen (Kershaw, 2008) gerra berri batek juduen arraza suntsituko zuela Europan. Hitlerrek zioen bere bizitzan zehar sarritan izan zela profeta eta barre egiten ziotela horregatik; baina, hala ere, berriro iragarpen bat egingo zuela: Europako barneko eta kanpoko nazioarteko finantza-gizon juduek arrakasta edukitzen bazuten eta nazioak berriro mundu gerra batean murgiltzen bazituzten, emaitza ez zela izango munduan boltxebikeak eta juduak nagusitzea, Europako juduen ezabamendua baizik. Iragarpen horrek eragin handia izan zuen ondorengo urteetan, 1941etik 1944ra bitartean, sarritan aipatzen baitzuten, bai Hitlerrek berak, bai Nazien buruek (Kershaw, 2008).

1939ko urriaren 30ean Polonia mendebaldeko judu guztiak Generalgouvernement-era eraman behar ziren; Polonian alemanek eskuratutako lurraldearen muina hor zegoen eta Hans Frank gobernadoreak agintzen zuen bertan (Kershaw, 2008). Lehenengo ghettoak 1939ko abenduan egin ziren; lanik egin ezin zutenak bizi ziren ghettoetan eta besteak lan eremuetara eramaten zituzten. 1940ko martxoan Hans Frankek ez zituen deportatutako judu gehiago onartu nahi Generalgouvernement-ean. Ez zen erraza juduen auziari irteera aurkitzea; horregatik, Hans Frankek 1940ko martxoan esan zuen, Reicheko juduak ez zirela desagertuko gerrak zirauen artean.

1940ko ekainean Heydrich-ek esan zuen ezin zela atzerriratze bidez konpondu Alemaniak zituen lurraldeetako hiru milioi eta erdi juduen arazoa, eta lurralde-irtenbide bat behar zela. Garai horretan juduak lurralde kolonial ba-

tera (esate baterako, Madagaskarrera) bidaltzea pentsatzen zuten nazien hainbat gidarik. 1940 erdi aldera Eichmann-ek oraindik pentsatzen zuen juduak Palestinara bidaliko zituztela (Kershaw, 2008).

1940an estreinatu zen *Der ewige Jude* (Betiko judua) izeneko dokumental antisemita, Alemaniako hiri handi guztietan proiektatu zena. Juduen kontrako jarrera suspertu egin zen alemaniarrek Batasun Sobietarra inbaditu zuteanean, boltxebike juduen kontrako gorrotoak indar handia hartu baitzuen. 1941eko martxoan Victor Brackek, Führeraren kantzileriako ofizialak, hainbat gaixo mental erail zituenak, proposatu zuen eguneko 3-4 mila judu antzutzea. Hitlerrek Himmler eta Heydricki agindu zien judu errusiarrak sistematikoki erailtzeko. 1941eko udaberrian, boltxebikeen kontrako gerran, multzoka hil zituzten judu errusiarrak (Kershaw, 2008).

1941eko udaren erdialdean nazien alderdiko erradikalek eskatu zuten juduek eraman zezatela jantzietan identifikagarri bat. Goebbelsek Hitlerrengana bideratu zuen eskaera eta Hitlerrek eskaera onartu egin zuen, Errusiako fronteko gerragatik urduri baitzegoen. 1941eko irailean Reicheko juduak Ekialdera erbesteratzea erabaki zuten. Ordura arte Hitlerrek esaten zuen ekialdeko azken garaipenaren zain egon behar zutela; baina, 1941eko udazkenean ikusi zuten gerra luzatu egingo zela, besteak beste, EEBAk gerran sartuko zirelako. Alemaniako, Txekiako eta Austriako juduak ekialdera eramaten hasi ziren, Hitlerren onarpenarekin (Kershaw, 2008).

Juduak ekialdera erbesteratzeko erabakia hartu zen, Errusiako lurralde zaletara deportazio handiak egiteko plana atzeratu egin zutelako. Gerra amaitu baino lehen juduak erbesteratzeko erabakiak genozidioa eragin zuen Polonian, Baltikoan eta ekialdean eskuratutako lurraldeetan. 1941eko azaroaren 16an argitaratutako «Juduak errudun dira» idatzian Goebbelsek esan zuen orduan ari zirela Hitlerren iragarpena betetzen (Kershaw, 2008).

1941eko abenduan Pearl Harbor-ko eraso gertatu zen. Erasoaren ondoren, Hitlerrek EEBAi gerra deklaratu zien. Ordurako hasia zegoen Polonia mendebaldeko juduen erailketa: Hans Frankek (Poloniako gobernadore orokorrak) ez zuen Hitlerren agindu espezifikoen beharrik juduak erailtzeko, edozein tokitan aurkituta ere; bazekien Hitlerren profezia betetzen ari zela (Kershaw, 2008).

Longerich-en arabera (2010), Europako juduen ezabatzea poliki-poliki gauzatzen joan zen 1941eko udatik 1942ko udara bitartean. 1942ko martxoan eta apirilean juduak Europa Mendebaldetik Ekialdera erbesteratu zituzten eta erailketak gertatu ziren Polonian eta Europa erdi aldean. 1942ko udaberrian erailketa-programa Generalgouvernement osora (Belzec, Sobibor eta Treblinka), Eslovakiara eta Europa ekialdeko lurralde okupatuetara hedatu zen. Hau guztia garatzen ari zen artean, SSko buru zen eta erailketa-programa gauzatzen zuen Himmlerrek etengabe esaten zuen Hitlerren esanetara ari zela. Alde ba-

tetik, Hitlerrek interes zuzena izan zuen gas-kameren garapenean. Beste alde-  
tik, 1942ko abenduaren 29an Hitlerrek txosten bat jaso zuen, Himmlerrek  
emana, eta bertan esaten zion Ukrainan 3 hilabetetan 387.370 bandido erail  
zituztela, eta horietako 363.211 juduak zirela (Fest, 2008).

Himmlerren eta Heydrichen jarduera antisemitikoa Hitlerren iragarpena-  
ren markoan gertatu zen. Beraz, Hitlerrik gabe Europako juduen desagertpen  
fisikoa ulertzea zaila gertatzen da.

## 5. Hitler genozidioaren edo Holokaustoaren sustatzaile

Sentimendu antisemitikoa oso zabalduta zegoen Alemanian aspaldidanik.  
Jende arrunta frustrazio pertsonaletatik aske sentitzen zen barnean erreprimi-  
turik zuen erasokortasuna kanpoko balizko errudun batengana bideratzen  
zuenen. Hitlerrek eta haren inguruko askok juduengana proiektatzen zituz-  
ten beren izaeraren alderdirik negatiboak: masokismoa, herabetasuna,  
ahultasuna. Versaillesko tratatua sinatu ondoren, hark sortutako frustrazioa  
gainditzeko, inoiz baino premia gehiago zuten alemaniarrek erru-hartzaile ba-  
tena. Hitlerrek bereizgarri gorrotagarrienekin loturik ikusten zituen juduak:  
demokrazia, kapitalismoa, komunismoa, materialismoa, sifilisa. Gauza txar  
guztien jatorrian juduak zeudela zioen (Mein Kampf, 1943).

Hitlerrek juduen kontra zuen jarreraren eragin handia izan zuen Luterok  
(Olsen, 2012). Hitler eta Lutero ez ziren izan juduen aurkakoak bizitzaren  
lehen garaietan; bizitza-esperientziak eraman zituen juduen aurka gero eta  
jarrera gogorragoak hartzera. Lutero gazteak zioen Jesukristo ere judu jaio zela  
eta jarrera positiboa zuen juduei buruz, baina, adinean aurrera zihoan hei-  
nean, juduen aurkako jarrera fanatikoa hartu zuen, eta gauza bera gertatu zi-  
tzaion Hitlerri. Hitlerrek gaztetan juduekin negoziatzen zuen, baina gero  
haien desagertpena antolatu zuen; Alemaniak jasaten zituen gaitz askoren  
errua juduena zela esaten zuen; beraz, indarrean jarri zituen Luterok kristauei  
aholkatutako juduen kontrako neurri asko: sinagogak erre, etxeak suntsitu,  
liburu eta idatzi talmudikoak desagerrarazi etab. Nurenbergeko epaiketan na-  
ziek milioika juduen erailketa justifikatu nahi izan zutenen, Luteroren *Juduei  
eta haien gezurrei buruz* liburua aipatzen zuten (Lutero, 1948).

Luteroren eta Hitlerren artean paralelismo batzuk badira; bien arteko antze-  
kotasuna ez da mugatzen anti-judaismora (Olsen, 2012). Biak ziren pertsona  
autoritarioak (Fromm, 1942), biek zuten sentimendu nazionalista indartsua eta  
biek nahi zuten alemaniarrek nazio handi batean biltzea, baina bietako inork ez  
zuen lortu nahi zuena, lehen baino zatituagoa utzi baitzuten Alemania.

Kristau luteranoek Hitlerri eman zioten sostengua, gehien batean. Luterok zioen herriak ez duela eskubiderik agintarien kontra altxatzeko, ez eta agintari zuzengabeena zenean ere. Garbi dago Luteroren eragina Hitlerrengan, agintari bidegabeek kontra egiteko jendeak duen eskubideari zilegitasuna ukatzen dionean; edo esaten duenean jendea behartua dagoela agintarien gehiegikeriak eramatera, jasanezinak direnean ere. Luterok esaten zuen agintariak gerra aginduz gero herriak obeditu egin behar diela eta haien alde borroka egin behar duela (Olsen, 2012). Luterok prest zegoen maite zituen germaniarrengatik hiltzeko eta beste horrenbeste gertatzen zen Hitlerrekin ere.

Luterok eta Hitler pertsona zurrun eta autoritarioak ziren (Erikson, 1958; Fromm, 1973). Hitler beti izan zen zurruna eta autoritarioa. Luterok, berriz, ingurune zurrun batean hezi izan zuten, baina lortu zuen bere espiritua eliza katolikoaren debekuetatik askatzea eta enperadorearen uztarpetik ihes egitea. Hala ere, protestantismoa ingurunean ezarrita gero, printzeen aldeko jarrera hartu zuen; jarrera benetan autoritarioa hartu zuen bizi-baldintzak hobetzea eskatzen zuten nekazarien kontra. Esan dezakegu Luterok ez zuela lortu uztarri autoritarioari ihes egitea, bizitzako unerik batean saiatu bazen ere ezarritako hertsapenetatik askatzen.

Hitlerren eta haren inguruko bereizgarri psikologikoen eragina izan zuten Holokaustoaren antolamenduan eta gauzatzean, baina zalantzarik ez dago XX. mendeko egoera sozio-ekonomikoaren eraginaz. Gizakiaren portaeran eragin nabarmena dute egoerako indarrek (Ross eta Nisbett, 1991) eta pertsona arruntak ez-ohiko egoeretan jartzen ditugunean, portaera desegokia edukitzen dute sarritan. Hala ere, ingurune desegokia nahikoa al da pertsona normal bat genozidioan inplikatzera eramateko? Pertsonen bereizgarriak ez al dute eraginik? Pertsonak ez al daukate bereizgarri sadikorik eduki beharrik genozidioan parte hartzeko?

Gaizkiaren banalitatearen ikuspegitik, edozein pertsonak egoera berezi batean jarrita, genozida baten moduan joka dezake (Arendt, 1992). Milgram-en ikuspegitik (1963, 1974), agintarietako esanekotasun maila altuak eraman dezake pertsona bat portaera hiltzaileak edukitzera. Baina, Berkowitz-en ikuspegitik (1999), Milgram-en ikuspegiak ez ditu bereizten Holokausto-prozesua hasi zuten pertsonak eta aginduak betetzera mugatzen zirenak. Ez ditu bereizten agintariak emandako aginduak betetzen zituzten beha eta erdi mailako pertsonak eta prozesua hasi zuten goi mailako pertsonak.

Bigarren Mundu Gerran gertatu zen moduko erailketa kolektibo batean biktimak, hiltzaileak eta lekukoak bereiz ditzakegu. Baina hiltzaileen artean ere erailketa sustatzen eta planifikatzen dutenak eta erailketa exekutatzeko dutenak bereiz daitezke. Holokaustoaren sustatzaileek bazuten hiltzaile zuzenak ez zuten bereizgarri bat: biolentzia kolektiboaren katalizatzaileak ziren. Sustatzaileek gorrotoan eta mesfidantzaz oinarritutako munduaren ikuspena zuten

eta erru-hartzailea bilatzeko joera eta biolentzia erabiltzeko joera handitzen zuten. Sustatzaile hauen artean sartu behar dira Lutero eta XIX. mende amaierako hainbat pentsalari (Wagner, Gobineau-ko kondea, Paul Bötticher, Eugen Dühring, Houston Steward Chamberlain, Lanz von Liebenfels). Hitlerrek ez zituen seguraski hartuko hartu zituen juduen kontrako jarrerak, pentsalari hauen eta beste batzuen eragina jaso izan ez balu (Berkowitz, 1999).

Bigarren Mundu Gerrako juduen erailketaren sustatzaile nagusia Hitler bera izan zen. Himmler eta Heydrich Azken Irtenbidearen arkitekto izan baziren ere, Hitler izan zen juduak erailtzeko enkargua eman ziena (Mandel, 2002). Holokaustoaren gauzatzaileen artean sartu behar dira genozidioan parte hartu zuten guztiak: polizia, militarrek, legelariak, sendagileak, zientzialariak, burokratak.

Sustatzaileak eta gauzatzaileak (hiltzaileak) erantzuleak dira, baina erantzukizun maila ezberdina dute. Kershaw-ren ikuspegitik (1998), erailketan zuzenki parte hartzen dutenak ordezka daitezke, baina sustatzaileak ordezkaezinak dira. Sustatzaileek exekutatzaileek baino botere maila altuagoa dute. Sustatzaileek badute boterea polizia eta armada mobilizatzeke, legeak aldatzeke, jendearengan propaganda bidez eragiteke, gehiengo isila exekutatzailearekin ados dagoela eta biktimak gezurti ustelak direla sinestarazteko.

Sustatzaileak sarritan ideologia baztertzailer batean oinarritzen dira jarraitzaileak erakarri eta bateratzeko. Beste nazioen gaineratik dagoen nazio bateko partaide direla, baina nazio hori arriskuan dagoela sinestarazten diete jarraitzaileei.

## 6. Ondorioak

Sentimendu, jarrera eta jokaera faxista eta antisemiten oinarrian, alde batetik, faktore soziologiko, ekonomiko, historiko eta kulturalak daude eta, beste aldetik, lider nazien ezaugarri psikopatologikoak daude. Faktore sozio-ekonomiko-kultural-historikoen eta faktore psikopatologikoen elkarri eraginez jokatzeko dute. Aldagai sozio-ekonomiko-historikoen, beste gabe, ez dute alderdi bat eramaten naziek hartu zituzten neurri errepresiboak hartzera. Era berean, bereizgarri psikopatologiko jakin batzuk dituzten pertsonak ez dituzte hartzen lider naziek hartu zituzten neurriak, edozein egoera sozio-ekonomiko-kultural-politikotan. Nazien sentimendu, jarrera eta portaerak ulertzeko beharrezkoa da, beraz, haien testuinguru sozio-ekonomiko-kulturala eta haien bereizgarri psikologikoak kontuan hartzea. Ondorioz, Hitler mugako ala psikotikoa zen edo Hitlerrek nortasunean zer nahaste-mota zuen aztertzeaz gain, aztertu behar dira, baita ere, Hitlerren garapen pertsonalean eta proiektio sozialean eragina izan zuten ingurune aldagaiak.

Gure lanean zehar Hitlerren jarrerak eta portaerak ulertzen saiatu gara, Alemaniako XX. mendearen lehen erdiko testuingurua kontuan hartuta eta, batez ere, Hitler beraren bereizgarri psikopatologikoak kontuan hartuta. Hala ere, Hitlerren jarrerak eta portaerak ulertzeak ez du esan nahi jarrera eta portaera horiek zurriz, onartzen edo barkatzen ditugunik.

1. Hitlerren nortasunaren bereizgarriak haurtzaroan jasandako tratu txarrak eta laidoak konpentsatzeko entsegu moduan ulertzen dira. Txikitako ezgaitasun eta ahuleziak, txikitan jasandako umiliazio eta irainak egongo lirateke Hitlerren portaeraren oinarrian. Hitlerrek sarritan erabiltzen zuen formazio erreaktibo defentsa mekanismo moduan: barneko ahultasuna eta beldurra kanpoko ausardia eta eraso-kortasunez estali nahi izan zituen. Alde batetik, gutxiagotasun sentimenduak eta ahultasunak ezkutuan gordetzen zituen eta, beste aldetik, kanpora begira jarrera megalomaniakoa hartzen zuen.

Bere bizitzan zehar Hitler saiatu zen aitaren irudiaren ordezkatzailak bilatzen, haiekin identifikatzeko. Babestuko zuten gidarien bila ibili zen armadan ere; familiak ematen ez ziona aurkitu nahi izan zuen armadan: ziurtasuna eta egonkortasuna. Gerraren ostean ere armadan jarraitu zuen, eskatzen zioten guztia eginez. Mundua gobernatuko zuen liderraren bila ibili zen bere gaztaroan zehar, baina ez zuen lider hori aurkitu, bere burua aurkitu zuen arte. Hainbeste alemaniarrek haren lidergoa hain azkar onartzeak eraman zuen Hitler bere burua lider baten aitzindari moduan ikustetik, Alemaniako führer moduan ikustera.

2. Hitlerrek disoziazio nabarmena bizi izan zuen familian aita erasokorraren eta ama goxoaren artean. Gurasoek eragin handia eduki zuten Hitlerren izaeran: aita gorroto zuen eta ama maite zuen. Aitaren eta amaren irudi kontraesankorrekin identifikatzeak edo aitaren irudiaren alderdi kontraesankorrekin identifikatzeak zalantzan jartzen zuen Hitlerren nortasunaren integrazioa. Hala ere, kanpora begira, nortasun integratu bat agertu nahi izaten zuen: egoera zailenei ere zalantzarik gabe aurre egiten dien Führer-arena; baina aurkezten zuen nortasuna nortasun errearen distortsio bat zen; erreakzio-formazio edo konpentsazio-erreakzio moduko bat.

Hitlerrek bi nortasun mota zituen. Alde batetik, biguna, erabakime-nik gabea eta sentimentala zen. Beste aldetik, gogorra, ankerra eta energiak beteak zen; helburuak jarrita gero, haien atzetik ahalegin guztiak egiten zituen. Lehenengoa ez zen gai neskame bat despeditzeko, eta erabakiak gerorako uzten zituen. Bigarrenak milaka lagun erail zitzakeen, lagunengandik hasita.

Nortasun edo egoera batetik besterako aldaketak ezagunak ziren Hitlerrengan. Edozein erabakiren aurrean ere bi egoera horietatik pasatzen zen Hitler: menderatzaile izatetik menderatu izatera; aitarekiko identifikazioa aktibatzetik amarekikoa aktibatzerara; masak menderatzetik partaide sexualaren mendeko masokista izatera. Rol bat edo beste har zezakeen borondatearen arabera: Hitler pasiboaren rola edo Führer aktiboaren rola. Hitzaldi baten garapenean ere egoera batetik besterako eraldaketa egiten zuen: hitzaldiaren hasieran herabe, urduri eta ziurtasunik gabe hasten zen hizketan, baina hitzaldiak aurrera egin ahala, Führer-a nagusitzen zen.

Hitlerrek nortasun integraturik ez zuen. Nortasunaren integrazio gabezia hori somatizazio prozesuetan eta sintoma eskizofrenikoetan ageri zen; eremu psikikoan lantzen ez zituen gatazkak eremu fisikoan ageri ziren, sintoma somatiko moduan: nahaste neurologikoak, digestio nahasteak, arnasketa arazoak, zirkulazio arazoak, itsutasuna. Bere baitan konpartimentu asko zituen, elkarrekin komunikazio handirik gabeak. Lankideei ez zien bere iraganeko ezer esaten. Bere baitan korronte ezberdinak baleude bezala jokutzen zuen. Sarritan Hitlerrek lankide bati ez zion esaten bestearekin zer negoziatu zuen. Sekretuak gordetzen bazekien.

3. Hitlerrek eskizofrenia paranoidearen sintoma guztiak agertu zituen bizitzaren une batean edo bestean. Sintoma horiek guztiak eduki arren, ez zuen haustura mental sakonik agertu. Proiekzio paranoikoa erabiltzeko joera handia zuen: kanpotik jasotzen zuen atzeraelikadura negatiboaren aurrean, bere burua mespretxatu edo kritikatu ordez, inkontzientean gordetzen zituen bere gutxiagotasun eta erruduntasun sentimenduak eta kanpoko objektuak erasotzen zituen. Hitlerrek Alemania Handiaren idealarekin identifikatu zuen bere burua, bere eldarnioak Alemaniara proiektatu zituen, eta gaizki zegoenaren errua juduei eta boltxebikeei bizkarreratu zien. Zorotasun sozial bat eraginez, zorotasun pertsonala ekidin zuen.
4. Hitlerrek bere buruaren irudi puztua zeukan. Alemaniako inoizko autoritaterik handiena zela, gerrako jaun nagusia zela, Alemania maila gorenera eramango zuen mesias eta führer-a zela, mila urte iraungo zuen Reich bat eraikiko zuela, Alemaniako arkitektozik handiena zela, izugarritzko mausoleoa merezi zuela iruditzen zitzaion eta bere irudiaz maitemindua zegoen. Txikitatik uste izan zuen aukeratua izan zela, amaren aldetiko anaia guztiak hil eta berak bizirik iraun zuelako. Armadan ere aukeratua izanaren sentipena izan zuen, zauririk gabe ihes egin ziolako lagun guztiak hil zizkion atentatuari. Nabaria zen Hitlerren nartzisis-

moa: bere ideologia eta planak bakarrik interesatzen zitzaizkion; bere desirak eta premiak asebetetzeko bakarrik hurbiltzen zen jendearengana.

Autoestimua puztua zeukanez, mehatxatua sentitzen zen besteen ebaluazio negatiboa jasotzen zuenean. Kritika onartzeak bere burua mespretxatzera eramango zuen. Horregatik, Hitlerrek bere irudi puztuaren kontrako kritikak jasotzen zituenean, erru-hartzaileak (juduak eta boltxebikeak) bihurtzen zituen bere hutsegiteen errudun. Erru-hartzaileak erasotzean, bere autoestimua berrindartua gelditzen zen.

Hitlerren irudi mitikoa eraikitzen asko saiatu ziren naziak (batez ere Goebbels). Gizakiaz gaindiko norbaiten moduan aurkezten zuten. Izugarritzko energia egozten zitzaion eta helburu bat ezartzen baldin bazuen, atzera inoiz ez zuela egiten esaten zen. Alemania handiaren eraikuntzara bere energia guztiak bideratzen zituen altzairuzko gizontzat zeukaten naziak. Hitler bera saiatzen zen irudi mitiko hori agertzen jendearen aurrean. Irudi mitiko horri eutsi beharragatik, kazetarien aurrean oso urduri jartzen zen, eta erantzun beharreko galderak aurrez ezagutu behar zituen. Askok kontrolatzen zituen ateratzen zizkieten argazkiak eta berari buruzko berriak.

5. Mugako nortasunaren bereizgarri batzuk ere bazituen Hitlerrek: pertsonarteko harreman ezegonkorrak, identitate sexualeko arazoak, haserrealdiak eta suizidiorako joera.
6. Hitlerrek nortasun autoritarioa zuen. Ez zen bere buruaz fidatzen edo besteez fidatzen eta ezin zuen jasan bere askatasunaren edo besteen askatasunaren ziurtasun gabezia. Besteen atxikimendu osoa eskatzen zuen, inolako kritika eta desadostasunik gabea. Ez zekien askatasunean funtzionatzen. Erakunde edo ideologia handi baten babesean bakarrik funtzionatzen zuen. Gehienetan (Alemaniaren Führer rola bete behar zuenean) pertsona autoritario aktibo moduan funtzionatzen zuen, eta orduan erabateko mendekotasuna eskatzen zien besteiei. Beste batzuetan (bizitza pribatuko hainbat egoeretan) pertsona autoritario pasibo moduan funtzionatzen zuen, eta erabateko mendekotasuna agertzen zuen besteen aurrean.
7. Estilo kognitiboari dagokionez, Hitlerrek egoera egituratuak zituen gogoko, anbiguotasuna nekez eramaten zuen eta itxiera kognitiborako joera zuen. Alternatiba ezberdinen artean aukeratu beharra ez zitzaion gustatzen; izan ere, alternatiben arteko gatazkak eta hautatu beharrak ziurtasun gabezia eta tentsioa sortzen zion. Ekintzen bidez askatzen zen zalantzatik eta tentsiotik. Gatazkatik irteteko ekintzak burutzen zituen. Hitler ez zen gehiegizko matizazioen zale. Alternatiba garbiak zituen atsegin. Ekintzak planifikatzeko gai zen Hitler, baina ekintzen bidez lortutako emaitzen analisi kritikorik ez zuen egiten.

Hitler ez zen gai lanerako egutegi edo ordutegi bat errespetatzeko. Erabaki asko azken unean, egoera eramanezina bihurtutakoan, hartzen zituen. Arazo bati aurre egitean alternatiba askoren artean aukeratu behar zuenean, erabakia atzeratzeko joera zuen Hitlerrek eta alternatiba bat aukeratu ordez, aldi berean alternatiba bat baino gehiago aukeratzeko joera zuen.

8. Alemaniak gerra galdu zuenean, galera horren erruduntzat juduak hartu zituen Hitlerrek. Vienan kaftanez inguratutako juduarekin izandako haluzinaziozko bizipenari geruza arrazional bat eman zion Mein Kampf-en. Lehen Mundu Gerraren ostean eraiki zuen Hitlerrek antisemitismoa, antiboltxebismoa eta arraza arioaren biziraupena elkartzen zituen eldarnio sistematizatu. Eldarnio horretan juduei loturik ikusten zituen Hitlerrek gehien gorrotatzen zituen errealitateak: demokrazia, kapitalismoa eta boltxebismoa. Nortasun kontraesankorra zuen: alde batetik, amaren pasibotasunaren eta mendetasunaren antza zuten bereizgarri pasiboak zituen; beste aldetik, aitaren erasokortasunaren antza zuten bereizgarri aktibo eta erasokorrek zituen. Nortasunaren alderdi bat edo beste aktibatzen zuen egoeraren arabera: 1) Vienan Hitlerren alde pasiboa izan zen nagusi: ez zegoen lanerako motibatua eta biziraupenerako bakarrik lan egiten zuen; 2) Lehen Mundu Gerraren ostean, politikaz interesatzen hasi zenean, Hitlerren bereizgarri aktiboak piztu ziren; aita erasotzailearekin identifikatu zen eta juduak eta boltxebikeak menderatzeari ekin zion.
9. Hitlerren jarrera eta jokaera antisemita ikuspegi pertsonalistatik edo ikuspegi estrukturalistatik uler daitezke. Ikuspegi pertsonalistaren arabera, Hitlerren haluzinaziozko bizipenak, haren eldarnio sistematizatuak eta hark hartutako erabaki espezifikokoak izan ziren Azken Irtenbidearen edo Holokaustoaren nondik-norakoak erabaki zituztenak. Ikuspegi estrukturalistaren arabera, nazien egitura osoak hartutako erabakiak izan ziren Azken Irtenbidearen eragile nagusiak.

Ezin da ukatu Holokaustoaren sustatzaile moduan Hitlerrek eduki duen ardura eta erantzukizun zuzena; alde horretatik, garrantzi berezia eduki zuen Hitlerrek juduen etorkizunaz Reichstag-en 1939ko urtarrilaren 30ean egindako iragarpenak. Baina, aldi berean ez dira baztertu behar beste lider nazien, burokraten, ofizial ez-nazien erantzukizunak. Holokaustoaren erantzukizuna ez da sustatzaileena bakarrik, gauzatzaileena ere bada, nahiz eta erantzukizun mailak ezberdinak izan. Hitlerrek bi pentsamendu lerro zituen juduen auziari buruz: gerran garaipena lortuz gero, juduak kanpoko lurralde batera eramango zituen; aldiz, gerran gauzak okertzen baziren, mendeku erradikala hartuko zuen. Errusiako frontean porrota izan zuela ikus-

tean, juduak ezabatzeko aukera egin zuen Hitlerrek. Alemaniarrek horretan sostengatu egin zuten.

Azken Irtenbidea planifikatzerakoan eta antisemitismoa sustatzera-koan Hitlerrek eginkizun garrantzitsua bete zuen. Alde horretatik, Holokaustoaren sustatzaile eta eragindako heriotzen erantzule zen Hitler. Baina, Holokaustoak erantzule gehiago izan zituen: Göring, Heydrick, Himmler, Nurenberg-eko epaiketari eseri ziren eta eseri ez ziren hainbat gidari nazi eta gidari horien aginduak bete zituzten hiltzaileak. Erantzuleak ziren Holokausto prozesua sustatu zutenak, sustatzaileek iradokia planifikatu zutenak eta planifikatutakoa burutu zutenak.

10. Hitlerrek ezagutzen zuen mugimendu baten arrakastarako masek zuten garrantzia, mugimendu bat aurrera eramateko gazteek eta emakumeek ematen duten sostenguaren beharra. Trebea zen alemaniarren premia eta sentimenduak ezagutzen eta sentimendu horiek hitzaldietan adierazten. Maisua zen metaforen erabilera. Esloganak jendearen buruan nola kokatu bazekien. Bazekien masak antolatzeke ideo- logia bat behar zela. Misio batean sinesten zuen eta hari eskaini zion bizitza osoa.
11. Hitlerrek bazuen alderdi nekrofilo bat, etsaiak menderatzera ez ezik, haiek erabat desegitera eramaten zuena; horrela bakarrik uler daiteke Hitlerrek zuen joera akats fisikoak zituztenak erailtzeko, hiriak eta eraikuntzak suntsitzeko, milioika judu erailtzeko.

Ondorio orokor moduan honako hau esango genuke:

- Hitlerrek ahultasun sentimendu sakonak zituen, baina bere burua- ren irudi puztu eta megalomaniako baten atzean gordetzen zituen ahultasun horiek.
- Aldika aita erasotzailearekin eta aldika mendeko amarekin identifi- katzen zen. Jendearen aurrean Führer erasokor eta menderatzaile- ren irudia aurkezten zuen, eta ezkutuan gordetzen zuen Hitler pasi- bo-masokistaren babesgabetasuna. Erasotzailearen edo Führer-aren rola betetzean, alderdiak, sindikatuak, nazioak eta herri osoak dese- giten zituen (sadismo politikoa). Mendekoaren edo Hitler-en rola betetzean, pertsona autoritario pasibo moduan jokatzeko zuten eta beste- en esanetara jartzeko zuten (masokismo sexuala).
- Pertsona autoritario aktibo moduan jokatzeko zuten, besteengan- dik zetozkion kritika negatiboak ez zituen onartzen eta kritikatzeko zutenak jazartzen, erasotzen, erbesteratzen eta desagerrarazten zi- tuen (antisemitismoa eta Holokaustoa).

- Eldarnio eskizofreniko paranoideen bidez, besteengandik jasotzen zuen atzeraelikadura negatiboa baliogabetzen zuen. Kritikatzailea erasotzen zuen edo erru-hartzaile baten bizkarrera jaurtikitzen zuen erantzukizuna (intelektualen liburuak erre).
- Nartzisista zen eta auto-kontzeptu puztu ezegonkorra zuen. Oso arriskutsu gertatzen zen auto-kontzeptu hori bera kritikatzeko zutezentzat.
- Mugako nortasunaren bereizgarri batzuk ere bazituen: pertsonarteko harreman ezegonkorrak, identitate sexualeko arazoak, haserreak eta suizidiorako joera.
- Nortasun autoritarioa zuenez, ezin zuen eraman bere buruaren eta besteen askatasuna; erretorikaren bidez saiatzen zen jendearen askatasuna mugatzen eta herriak nondik nora joan behar zuen agintzen. Aukera askea ahalbidetzen duen demokraziaren etsai amorratua zen.
- Estilo kognitiboari dagokionez, zaila egiten zitzaion alternatiba baten aldeko erabakia hartzea; bere guztiahaltasun sentimenduari eusteko, alternatiba bat aukeratu ordez, aldi berean alternatiba bat baino gehiago aurrera eramaten saiatzen zen; bide horretatik uler daiteke genero baten aldeko apustu garbia egin ez izana ere.
- Amaitzeko, juduak eta boltxebikeak egin zituen bere frustrazio guttien erantzule eta haiek desagerrarazten saiatu zen.

Antisemitismoa ez zuen Hitlerrek asmatu, baina hark bultzada handia eman zion. Holokaustoaren erantzule bakarra ez zen Hitler izan, baina haren sustatzaile nagusia izan zen bera. Holokaustoa gauzatu ahal izateko, ingurunea prestatu behar zen, eta horretan jende eta faktore askok hartu zuten parte, baina Hitler izan ez balitz, Holokaustoa ez zatekeen izango izan zena; haren bereizgarri autoritario, nartzisista eta paranoideek eta haren eldarnio sistematizatuak eragin erabakigarria eduki zuten Holokaustoaren sorrera eta garapenean. Era berean, XX. mendeko lehen erdiko egoera sozio-ekonomiko-politiko-kulturala gertatu izan ez balitz ere, Holokaustoa ez zen gauza bera izango.

Hitlerrek nahaste asko zituen, baina ez zegoen erabat zorotua eta Alemaniako egoera baliatu zuen egin zuena egiteko. Hitlerrek nahaste psikologiko asko zituen, baina bazekien zertan ari zen eta bazekien egiten ari zena gizateriaren kontrako delitua zela. Beraz, bere portaearen erantzule zen.

## Erreferentzia bibliografikoak

- ARENDDT, HANNAH (1992), *Hombres en tiempos de oscuridad*. Barcelona: Gedisa.
- BAUMRID, DIANA (1991), «The influence of parenting style on adolescent competence and substance use». *Journal of Early Adolescence* 11: 56-95.
- BAUMEISTER, ROY, SMART, LAURA eta BODEN, JOSEPH (1996), «Relation of threatened egoism to violence and aggression: The dark side of high self-esteem». *Psychological Review* 103: 5-33.
- BERKOWITZ, LEONARD (1999), «Evil is more than banal: Situationism and the concept of evil». *Personality and Social Psychology Review* 3 (3): 246-253.
- BINION, RUDOLPH (1973), «Hitler's Concept of «Lebensraum»: the Psychological Basis». *History of Childhood Quarterly* 1: 187-215.
- (1974), «Foam on the Hitler Wave». *Journal of Modern History* 46: 552-558.
- BRAYARD, FLORENT (2004), *La «solution finale de la question juive». La technique, le temps et les catégories de la décision*. Paris: Fayard.
- BROSZAT, MARTIN (1985), «Hitler and the genesis of the 'final solution': An Assessment of David Irving's Theses». In H.W. Koch (arg.), *Aspects of the Third Reich*, London: Macmillan Education, 390-429.
- BROWNING, CHRISTOPHER (2004), *The Origins of the Final Solution. The Evolution of Nazi Jewish Policy, September 1939 - March 1942*. Lincoln: The University of Nebraska Press.
- BURRIN, PHILIPPE (1989), *Hitler et les juifs. Genèse d'un génocide*. Paris: Ed. Seuil.
- COOLIDGE, FREDERICK, DAVIS FELICIA eta SEGAL DANIEL (2007), «Understanding madmen: A DSM-IV assessment of Adolf Hitler». *Individual Differences Research* 5: 30-43.
- DAWIDOWICZ, LUCY (1986), *The War Against the Jews 1933-1945*. New York: Bantam.
- DIETRICH, OTTO (1957), *The Hitler I Knew*. London: Methuen & Co. Ltd.
- DÖRNER, DIETRICH eta GUESS, DOMINIK (2011), «A Psychological Analysis of Adolf Hitler's Decision Making as Commander in Chief: Summa confidentia et nimius metus». *Review of General Psychology* 15: 37-49.
- ERDELYI, M. H. (1985), *Psychoanalysis: Freud's cognitive psychology*. New York: W. H. Freeman and Company.
- ERIKSON, ERIK (1951), *Childhood and Society*. London: Imago Publishing Company.
- (1958), *Young Man Luther*. London: Faber and Faber.
- FENICHEL, OTTO (1945), *The Psychoanalytic Theory of Neurosis*. New York: Norton.
- FEST, JOACHIM (1974), *Hitler*. New York: Harcourt Brace Jovanovich.
- (2005), *Hitler, una biografía*. Barcelona: Planeta DeAgostini.
- (1970), *The face of the Third Reich*. Oxford: Penguin Books.
- FLEMING, GERALD (1984), *Hitler and the Final Solution*. Berkley: University of California Press.
- FRANÇOIS-PONCET, ANDRÉ (1946), *Souvenirs d'une ambassade à Berlin*. Paris: Flammarion.
- FROMM, ERICH (1942), *The Fear of Freedom*. London: Kegan Paul. <http://realsociology.edublogs.org/files/2013/09/erich-fromm-the-fear-of-freedom-escape-from-freedom-29wevxx.pdf>
- (1957), «The Authoritarian Personality». *Deutsche Universitätszeitung, Band 12* (9): 3-4

- (1973), *The Anatomy of Human Destructiveness*. New York: Henry Holt. <http://filozofia.3bird.net/download/filozofia/fromm/filozofia-erich-fromm-the-anatomy-of-human-destructiveness.pdf>
- FUCHS MARTIN (1939), *Snowdown in Vienna; the death of Austria*. New York: Putnam's Sons.
- GERLACH, CHRISTIAN (1998), «The Wannsee Conference, the Fate of German Jews, and Hitler's Decision in Principle to Exterminate All European Jews». *The Journal of Modern History* 70 (4): 759-812. <http://www.rci.rutgers.edu/~jewishnb/hrc/mti/wannsee.pdf>
- GOEBBELS, JOSEPH (1978), «Führer as Orator» in *Adolf Hitler: 1931-1935: Pictures from the Life of the Führer*. New York: Peebles Press.
- GOLDHAGEN, DANIEL (1996), *Hitler's Willing Executioners: Ordinary Germans and the Holocaust*. New York: Knopf.
- GÖTZ, ALY (1999), *'Final Solution' Nazi population policy and the murder of the European Jews*. New York: Oxford University Press.
- HAFFNER, SEBASTIAN (2002), *Anotaciones sobre Hitler*. Barcelona: Galaxia Gutenberg.
- HAMANN, BRIGITTE (1999), *Hitler's Vienna: A Dictator's Apprenticeship*. New York: Oxford University Press.
- HANISCH, REINHOLD (1939), «I Was Hitler's Buddy», In *The New Republic* (New York) Apirilak 5, 239-242; Apirilak 12, 270-272; Apirilak 19, 297-300.
- HENTIG, H. VON (1964), *Der Nekrotope Mensch*. Stuttgart: F. Enke Verlag.
- HERNÁNDEZ, JESÚS (2012), *Breve historia de Hitler*. Madrid: Ediciones Nowtilus S. L.
- HESTON, LEONARD eta HESTON, RENATE (1979), *The medical casebook of Adolf Hitler: His illnesses, doctors, and drugs*. New York: Stein and Day Publishers.
- HITLER, ADOLF (1943), *Mein Kampf*. Boston: Houghton Mifflin Company.
- HYLAND, PHILIP, BODUSZEK, DANIEL eta KIELKIEWICZ, KRZYSZTOF (2011), «Psycho-Historical Analysis of Adolf Hitler: the Role of Personality, Psychopathology and Development». *Psychology and Society* 4 (2): 58-63.
- IRVING, DAVID (1983), *The secret diaries of Hitler's doctor*. London: Grafton Books.
- JIMENEZ CORES, PABLO (2004). *La estrategia de Hitler. El mesías del apocalipsis. Las raíces ocultas del nacionalsocialismo*. Madrid: Ediciones Nowtilus.
- JUNG, CARL GUSTAV (1977), *C.G. Jung Speaking: Interviews and Encounters*. Edited by William McGuire and R.F.C. Hull. Princeton: Princeton University Press.
- KERSHAW, IAN (1998), *Hitler: 1889-1936: Hubris*. London: Penguin.
- (2008), *Hitler, the Germans, and the Final Solution*. London: Yale University Press.
- KÖHLER, JOACHIM (2000), *Wagner's Hitler. The Prophet and His Disciple*. Cambridge: Polity Press.
- KUBIZEK, AUGUST (1953), Adolf Hitler, mein Jugendfreund (Ingeles itzulpena: *The Young Hitler I Knew: The Memoirs of Hitler's Childhood Friend*. Barnsley, West Yorkshire: Greenhill/Frontline, 2011).
- LANGER, WALTER (2012), *A Psychological Analysis of Adolph Hitler: His Life and Legend*. Washington: Office of Strategic Services.
- (1972), *The Mind of Adolf Hitler. The secret Wartime report*. New York: Basic Books.
- LONGERICH, PETER (2010), *Holocaust: The Nazi Persecution and Murder of the Jews*. Oxford: Oxford University Press.

- LUTHER, MARTIN (1948), *The Jews and their lies*. Los Angeles: Christian Nationalist Crusade.
- MANDEL, DAVID (2002), «Instigators of genocide: examining Hitler from a social psychological perspective». In S. Newman & R. Erber (arg.), *Understanding genocide: The social psychology of the Holocaust*, New York: Oxford University Press, 259-284.
- MANSOUR, MOJGAN SEPAH, SHAHABIZADEH, FATEMEH eta KHOSHNEVIS, ELAHEH (2008), Perceived childhood attachment, adult attachment and attachment to God. *Journal of Iranian Psychologists* 4, 20-33.
- MAYER, JOHN D. (1993), «The emotional madness of the dangerous leader». *Journal of Psychohistory* 20: 331-348.
- MILGRAM, STANLEY (1963), «Behavioral study of obedience». *Journal of Abnormal and Social Psychology* 67: 371-378.
- (1974), *Obedience to authority: An experimental view*. New York: Harpercollins.
- MILLER, ALICE (1998a), *The Childhood Trauma (From a lecture she gave at the Lexington 92nd Street YWHA in New York City on October 22, 1998)*. [http://www.vachss.com/guest\\_dispatches/alice\\_miller2.html](http://www.vachss.com/guest_dispatches/alice_miller2.html)
- MILLER, ALICE (1998b), «The Political Consequences of Child Abuse». *The Journal of Psychohistory* 26 (2): 573-585.
- MURRAY, HENRY (1943), *Analysis of the Personality of Adolph Hitler*. Washington, D.C.: Office of Strategic Services.
- OLSEN, DAPHNE (2012), «Luther and Hitler: A Linear Connection between Martin Luther and Adolf Hitler's Anti-Semitism with a Nationalistic Foundation». Master of Liberal Studies Theses. Paper 20.
- PAOMINO, THOMAS (1981), *Psychoanalytic psychotherapy: Theory, technique, therapeutic relationship, and treatability*. New York: Brunner/Mazel Publishers.
- PAYNE, ROBERT (1973), *The life and death of Adolf Hitler*. New York: Praeger Publishers.
- PRICE, GEORGE WARD (1937), *I Knew These Dictators*. London: Harran.
- RAUSCHNING, HERMANN (1940), *Gespräche mit Hitler*. Wien: Europa-Verlag.
- REDLICH, FRITZ (1998), *Hitler: Diagnosis of a Destructive Prophet*. New York: Oxford University Press.
- REICH, WILHELM (1972), *Psicología de masas del fascismo*. Madrid: Ediciones Castilla.
- ROSENBAUM, RON (1998), *Explaining Hitler: The search for the origins of his evil*. New York, NY: Harper Perennial.
- ROSS, LEE eta NISBETT, RICHARD (1991), *The person and the situation: Perspectives of social psychology*. New York: McGraw-Hill.
- RUCHKIN, VLADISLAV (2002), «Family impact on violent youth». In R. R. Corrado, R. Roesch, S. D. Hart eta J. K. Gierowski (arg.), *Multi-problem violent youth: A foundation for comparative research on needs, interventions, and outcomes*, Amsterdam: IOS Press, 105-115.
- SPEER, ALBERT (1970), *Inside the Third Reich*. New York: Macmillan.
- STRASSER, OTTO (1940), *Hitler et Moi*. Paris: Grasset.
- THRINE, ABIGAIL M. (2004), *Adolf Hitler: Psychological Diagnosis of a Madman*. Muncie, Indiana: Ball State University. Honors College.
- TORRES, MAURO (2008), *Hitler a la luz de la clásica y moderna psicología*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- WAITE, ROBERT (1977), *The Psychopathic God: Adolf Hitler*. New York: Da Capo Press.